

Jokoa hasi zutenak

Kontxi Egiarte Arribalzaga zornotzarra, Miren Zamakona Azkuna durangarra eta Idoia Larrañaga Ansola elorriarra aitzindari izan ziren eskualdeko futboleak. Orain 50 urte hasitako bide hari eskerrak, belaunaldi berriak ailegatu dira gaurdaino • 2. orrialdea



LEHIOR ELORRIAGA

“Zibererasoen aurrean pertsonak ere trebatu behar dira, adituak aholkuei jarraituta”



Iratxe Lejarreta eta Ricardo Ferreria. Segurtasun informatikoan adituak. • 8

Kataluniako erreferendumaren epaiak Durangalde osoan eragin du oihartzuna

Durangaldea | Eskualdeko herritarrek haserrea agertu dute epaiarekiko, eta elkartasuna zigortutako politikariekiko. • 8



Durangoko jaiak prest daude bigarren astebururako

Durango | Motorrak bero-bero daude jaien bigarren asteburuari ekiteko. Eromena berriro nagusituko da txosnaguneaz eta herriko kaleez. Domekan amaituko dira jaiak. **4. orrialdea**



60 URTE

Urriaren 1etik 31ra

**URTEURREN
HANDIA**

SCHMIDT

Zu ez zarela besteak bezalakoa

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

> Batu zaitez geurera hemen





Kontxi Egiarte Arribalzaga
Iraultza taldeko jokalaria ohia
Zornotza | 1948

Miren Zamakona Azkuna
Kemen taldeko jokalaria ohia
Durango | 1948

Idoia Larrañaga Ansola
Besaide taldeko jokalaria ohia
Elorrio | 1954

Ezkerretik eskumara: Kontxi Egiarte, Miren Zamakona eta Idoia Larrañaga, Tabirako parkean. **LEHIOR ELORRIAGA**

“Orduan ez ginen kontziente, baina moldeak apurtu genituen”

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

60ko hamarkadaren amaieran, emakume batzuk lehenengo urratsak ematen hasi ziren futbolearen zeuden harresiak eraisteko. Miren Zamakona, Kontxi Egiarte eta Idoia Larrañaga aitzindariak izan ziren emakumeen futbolearen, eta Durangoko Kemen, Zornotzako Iraultza eta Elorrioko Besaide taldeetan jokatu zuten, hurrenez hurren. Hainbat partidu jokatu zituzten eta, tartean, baita elkarren arteko derbiak ere: 1969ko urrian, Durangoko Tabira futbol zelaiak Kemen eta Besaide taldeen arteko neurketa hartu zuen. Urte bereko abenduan, Iraultzak eta Kemenek beste partidu bat jokatu zuten Zornotzan.

Hiru protagonistek partidu bi haiek gogoratu dituzte eta, emakume izanda, orduan futbolearen aritzeak suposatzen zuenaren inguruan go-goeta egin dute.

Umetatik gustatzen zitzaizuen futbolearen jokatzeari?

Miren Zamakona: Nik ez nuen aurretik futbolearen jokatu. Durangoko neska batek, Lidia Perezek, gauza asko antolatzen zituen eta behin esan zigun ongintzazko partidu bat antolatu gura zuela beharrezana zutenen alde dirua batzeko. Hainbat kuadrillatuko jendea batu ginen partidu haren harira. Aste batzuetan entrenatu ginen, entrenatzaile batzuen laguntzagaz. Klase teori-

koak eta praktikoak, bietatik jaso genuen. Tabira futbol zelaiaren entrenatzen ginen, goizetan, 07:00etan hasita.

Kontxi Egiarte: Ni beti izan naiz futbolaria. Oraindino ere asko gustatzen zait. Txikitik aitagaz joaten nintzen, Amorebietaren partiduak ikustera. Kanpoko partiduetara ere joaten ginen, autobusean.

Idoia Larrañaga: Oraingo moduan, orduan ere geldi egon ezin den horietakoa nintzen. Antzerkian, dantzian, monitore lanetan... ibili nintzen, eta kirola ere asko gustatzen zitzaidan. Orduan, ekintzaileak ginen. Dirua batu gura genuen gazteei begirako ekintzak antolatzeko, eta Elorrioko futbol talde biren arteko partidu antolatu genuen, 1968an. Maite Egidazu eta Mari Lolo Igartiburu izan ziren, besteak beste, partidu haren sustatzaileak. 19-20 urte genituen denok. Partiduan batutako diruagaz, gerora Mucedades deituko zen taldea ekarri genuen Elorriora. Orduan, 'Voces y guitarras' deitzen ziren.

Kontxi, hiru taldeetan Iraultza izan zen sortzen lehenengoa.

K.E.: 1968an izan zen. Dantzan egiteko talde bat sortzen genbiltzan, baina ez geneukan dirurik. Zer egin? “Eta emakumeen futbol talde bat sortzen badugu?”, bota nuen behin. “Baina noren kontra jokatuko dugu?”, erantzun zidaten. Talderen bat aurkituko guelakoan,

asmoagaz aurrera egitea erabaki genuen. Deustuko Unibertsitateko nesken kontra jokatu genuen lehenengo partidu, Zornotzan. Gogoan dut, partidu haren harira, Zahor txokolate enpresara joan ginela gure babesle izan zitezkeen eskatzera. Hauxe esan nien: “Gure babesleak izan behar duzue, unibertsitatekoen kontra jokatuko dugu, kazetariak etorriko dira eta

“

I. Larrañaga: "Serio ibili ginen. Talde biok irabazi gura genuen. Hala ere, lagunarteko giroa zegoen"

famatuak egingo zaretel!”. Eta kontentzitu egin genituen!

Zelan gogoratzen duzu lehenengo partidu hura?

K.E.: Gu praka motxetan eta takodun oinetakoekin zelairatu ginen; eurak gonagaz eta zapatilekin. Gure izaera baloi guztiak borrokatzea zen eta beti aurrera egiten genuen. Eurak ez ziren horrelakoak. Baloiak gure oinetan amaitzen zuten beti. 5-0 irabazi genien.

1969ko urrian, Durangoko Kemen eta Elorrioko Besaide taldeen arteko partidu jokatu zen Durangon. Zelan gogoratzen duzue egun hura?

I.L.: Serio ibili ginen. Talde biok irabazi gura genuen. Hala ere, lagunarteko giroa zegoen. Gaur egun dena da lehia eta irabazi beharra. Orduan desberdina zen.

M.Z.: Denok helburu beraren baitan batu ginen eta ikuskizun on bat eskaini gura genuen. Ondoren, Durangoko Kulturekoek esan ziguten partidu hartan urteko sarrierarik handiena egon zela Tabira futbol zelaiaren.

Handik hile bira, 1969ko abenduan, Zornotzako Iraultza eta Durangoko Kemen taldeen arteko jokatu zen, Zornotzan.

K.E.: Iraultza taldeak 3-1 irabazi zuen.

M.Z.: Gogoan dut eguraldi txarra egin zuela. Txingor-zaparradak egin zituen eta zelaia lupeztuta egon zen.

K.E.: Takoak lupetzetan trabatzen zitzaizkigun.

M.Z.: Atezaina lesionatu egin zitzaigun eta neu ipini nintzen bere orde, taldeko txikiena izan arren. Gogoan dut jokalaria bat baino gehiago lesionatu zitzaigula lehenengo zatian, eta aldageletatik bueltan Iraultza taldeko batzuek gugaz jokatu zuten.

K.A.: Egunkarietan partidu haren kronikak egin zituzten. Partidu hartan gol bat sartu nuen eta kazetari batek idatzi zuen sasoirik oneneko Anton Arieta, Athletic taldeko jokalaria ohi durangarra, ematen

nuela. Bada, Arietak kronika hura irakurri zuen eta Amorebieta futbol klubera deitu zuen, golegile lez parekatzen zuten emakume hori nor zen galdetzeko!

Partidu haien ondoren, taldeek ibilbide luzea izan zuten?

M.Z.: Ez. Partidu batzuk gehiago jokatu eta Kemen taldea desagertu egin zen. Orduan jokalariek ginenok hainbat gauzatan sartuta geunden eta ez geneukan denerako astirik.

I.L.: Gure kasuan ere ez zuen asko gehiago iraun. Futbola gustatzen zitzaidan, baina gu ere gauza askotan sartuta geunden eta, azkenean, utzi egin genuen.

M.Z.: Gainera, partidu haiek hel-

buru konkretu batez antolatu ziren. Ongintzako partiduak ziren.

K.E.: Guk apur bat gehiago jarraitu genuen. Gogoan dut Lemoaren kontrako partidu batean ateratako diruagaz farola batzuk erosi zirela Zornotzako futbol zelairako. Urte hartan dirurik gehien batu zuen partidua izan zela esan ziguten. Bigarren talde bat ere sortu genuen, neska gazteagoekin. Afizioa geneukan, serio genbiltzan eta taldea federatu gura izan genuen ligan jokatzeko, baina, azkenean, ez zen aurrera irten.

Kontxi, Iraultza taldean ibili zinetenok omenaldi bat jaso zenuten joan zen maiatzean. Zelan gogoratzen duzu egun hura?

K.E.: Amorebieta futbol klubak antolatutako neska gazteen futbol torneo batean izan zen. Sasoi bateko jokalariek asko batu ginen

“

K.Egiarte: "Amorebieta futbol klubaren nesken torneoan omenaldia jasotzea oso polita izan zen"

—

eta polita izan zen eurak ikustea. Horrelako errekonozimendua jasotzea oso polita izan zen, benetan hunkigarria.

Sasoi hartan, sentitu zenuten errezelorik jendearen partetik emakumeak futbolean jokatzeko?

M.Z.: Ez gintuzten serio hartzen.

I.L.: Orduan ez zen erraza! "Mujeres teníais que ser" eta antzerakoak entzuten genituen.

K.E.: Kamioilari gorputza geneukala, jokatzeko ez bagenekien sukaldaria itzuli behar genuela... eta antzerakoak esaten zizkiguten partiduetan.

M.Z.: Horrelako komentarioak ez ziren gustagarriak, baina, tira, dena aguantatzen genuen. Ez zigun ardurara.

I.L.: Beste sasoi batzuk ziren.

M.Z.: Baina, beste aldetik, orduan mutikoak ziren bat baino gehiago

oraindino gogoratu egiten dira partidu hartaz. Behin baino gehiagotan komentatu izan didate. Eurentzat nobedadea izan zen eta!

Atzera begira ipinita, zelan ikusten duzue orduan egin zenutena?

I.L.: Orduan ez ginen kontziente, baina moldeak apurtu genituen. Orain, distantziatik begiratuta, argiago ikusten dut hori. Futbola gizonen kirola zen, guztiz.

K.E.: Bide bat zabaltzen lagundu genuela uste dut.

M.Z.: Ez ginen helburu horregaz batu; beste bat zen motibazioa. Idoiak eta Kontxik dioten moduan, orduan, beharbada, ez ginen jabetzen egiten genbiltzanaren esanguraz.

Zuri-beltzean geratuko ez diren sei argazki



Durango Kemen taldea Tabira futbol zelaietan, 1969an, Besaideren kontrako derbian.



Elorriko Besaide taldea Tabira futbol zelaietan, 1969an, Kemen taldearen aurkako derbian.



Kemen eta Besaide taldeek Tabiran jokatu zuten derbiko irudi bat.



Besaide taldeko Olga Salgado eta Kemen taldeko Kristina Mardaras izan ziren partiduko kapitainak.



Zornotzako Iraultza taldeko jokalariek 'Trofeo de Hierro' izeneko torneoaren irabazitzaile gisa.



Iraultza taldeko jokalariek, 2019ko maiatzean Amorebieta klubak antolatutako torneoaren omenaldian.

Jaiak azken txanpan sartuta egon arren, zoramenerako hiru egun dituzte durangarrek

Durangoko jaiak domekan amaituko dira. Pantxikeri eta Patxikotxuri agur esan aurretik, ekitaldi mordoago oraindino. Su artifizialak eta tortilla txapelketa egongo dira asteburuan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Zapiak prest. Jaia egiteko gogoa prest. Jaietako lehenengo ekitaldiak pasatuta, durangarrak gertu daude arnasa hartu eta bigarren erasoari ekiteko. San Fausto jaien bigarren asteburua ate-joka dagoen honetan, musikak protagonismo handia hartuko du. Estilo askotarikozko kontzertuak izango dira ikusgai kaleetan zein txosnagunean. Bariku honetan bertan, lau kontzertuz osatutako gaua dute aurretik txosnagunean. Taula gainetik, egurra banatuko dute Azken sustraia, Liher, Ira eta Klag Klub taldeek.

Zapatuari dagokionez, Proyect Show DJ ikuskizuna egongo da Andra Marian, 22:00etan. Txosnetan, Luhartzen erromeria giroan dantzatuko dira 23:00etatik aurrera,

eta, Ezkurdin, Nueva Alaska orkestrak oraingo eta lehenengo hit handienak errepasatuko ditu. Domekan, giro lasaiagoko musika egongo da entzungai. Durangoko Orfeoia eta

Azken sustraia, Liher, Ira eta Klag Klub taldeak igoko dira gaur txosnaguneko oholtzara

Tabira Udal Musika Banda arduratuko dira eginkizun horretaz.

Asteburuko beste ekitaldi batzuk patata tortilla txapelketa, erreka garbiketa, umeentzako jolasak eta dantza saioak dira.

Domekan, despedida

Domekan egingo dira ohiko despedida erritualak Durangon. Hori bai, tristeziari bizigarri apur batez aurre egitea onuragarria izaten denez, jai giroko despedidak izango dira. Txosnagunean, 18:30ean egongo den txokolata-dak gozotuko du Pantxikeraren agurra. 19:30ean, kalejiran aterako dute Patxikotxu, txarangak lagunduta. 20:00etarako programatuta dauden su artifizialean ikustaldiak itxiko du aurtengo Durangoko jaien egitaraua. Hartzek nola, hala pasatu beharko dute negua Pantxikek eta Patxikotxuk. Bueltatuko dira, ohikoa duten aulkian jesarri eta durangarrak berriro zelatatzen. Ziur.



Asteburu honetan, musika estilo askok hartuko dituzte kaleak eta txosnagunea.

Asteburuan eraso sexista bat gertatu dela salatu du Durangoko Txosna Batzordeak

Joan den zapatatik domekara bitarteko gauean izan zen eraso sexista. Txosnagunean protokoloa aktibatu zuten eta ordu laurdeneko geldialdia egin dute gau bitan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Bilgune Feministako kideek eman zuten abisua: eraso sexista baten berri izan zuten joan zen zapatatik domekara bitarteko gauean, eta Txosna Batzordeak protokoloa aktibatu zuen une horretan bertan. Tabernako lanak eten egin zituzten ordu laurdenean, eta, musikaren orde, sirena hotsa ipini zuten. 03:00ak pasatxo ziren protokoloa aktibatu zutenean. Domeka gauerdian ere egin zuten etealdia, protesta modura. Jaiak hasi eta berehala, barikuan, aliantzak sortzeko eta erasoei erantzuteko deia egin zuen DAFak, Durangoko Autodefentsa Feminista Asanbladak.



Durangoko Autodefentsa Feminista Asanbladak manifestazioa egin zuen barikuan.

Emakume baserritarrak lurraren iraunkortasunean izan duen rola goraipatu dute Durangon

Euskal Autonomia Erkidego osotik ailegatutako 120 emakume baserritarrek topaketa egin dute Durangon

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Asteon, Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu dute Durangon. Esperientziak partekatze balio izan die ospakizunak. Besteak beste, Landa XXI elkarteak Zuhaitza lana aurkeztu du. Argazki eta bideoen bitartez, emakume baserritarren bizipe-

nak bildu dira bertan. Ekitaldian, Ima Garrastatxu Durangoko alkateta, Jone Fernandez Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendaria eta Maite Peñakoba Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza zuzendaria izan dira. Denek goraipatu dute baserriko emakumeen rola.



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko urriaren 18a
17. urtea - 780. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Urte dezente dira Euskal Herrian jesuita izan gura duen gazte berririk ez dugula”

Jesusen Lagundiak Durangoko elkarte itxiko du. Ondorioz, Koldo Cacho eta beste jesuitak tokiz aldatuko dituzte



Koldo Cacho, jesuitek Kuruziaga kalean duten etxearen aurrean.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Jesusen Lagundia ordena erlijiosoak bere egiturak berrantolatu ditu eta, horren ondorioz, Durangoko elkarte itxiko dute. Beraz, Kuruziaga kaleko eraikinean bizi diren 7 jesuitak beste nonbait birkokatuko dituzte. Koldo Cacho Ultra (Tutera, 1957) jesuita da euretariko bat. 12 urte eman ditu Durangon.

Zeintzuk dira egitura berrantolatzaren arrazoi nagusiak?

Errelebo falta da arrazoi nagusia. Ni sartu nintzenez, 1976an, Loiolakoa zen ordena banatuta zegoen sei probintzietako bat, eta 1.000 bat jesuitek osatzen zuten: 500 hemen zeuden, eta beste 500 kanpotik, misiolari eta abar. Urteak aurrera joan ahala, kopurua izugarri murriztu

da. Ondorioz, probintzia bakarrean batu gara. Beraz, orokorrean, ez dago erreleborik, eta are gutxiago errelebo euskaldunik. Urte dezente dira Euskal Herrian jesuita izan gura duen gazte bakar bat ere ez dugula. Beraz, alde batetik, kopuruan murrizte handia eta azkarra gertatu da. Bestetik, Durangon dauden Jesuitek, ni ez beste seiek, 70 edo 80 urtetik gora dituzte. Hori guztia kontuan hartuta, Durangoko elkarte zabalik mantentzea ez zen jasagarria.

Zertan geratuko da etorkinentzat duzuen Jesuiten Etxea proiektua?

Orain 12 urte ipini genuen martxan. Laguntza behar duten edo paperik ez duten etorkinak gure etxean hartzen ditugu, urtebetean. 50-60 bat etorkin hartuko genituen egitasmoa martxan ipini zenetik. Hemendik beste pisu batera joaten dira; trantsizioko pisu bat da eta Durangon bertan dago. Oso proiektu garrantzitsua da guretzat eta aurrera jarraituko du. Hori azpimarratu gura dut. Aurrera jarraitzeko modurik egokiena pentsatzen ari gara. Boluntarioak beharko ditugu, nahitaez. Boluntario talde bat batu gura dugu, hemen, Kuruziagako eraikinean biziko dena, elkarrengatik, etorkinekin batera, eta etorkinei gaztelania eskolak

emango dizkiena. Hori kudeatzen gabiltza orain. Horixe da hurrengo ikasturteari begira lotu guran gabiltzana. Dagoeneko lotuta daukaguna honako hau da: Bilbon dugun Ellacuria Fundazioak proiektu honen ardura hartuko du. Azken urteetan, aholkularitza zerbitzua eskaini diete hemengo etorkinei, baina, aurrerantzean, egitasmoaren lidergoa eurek eramango dute. Beti ere, hemen boluntario talde bat dagoela.

Etorkinekin duten proiektuak aurrera jarraitzeko, boluntario bila dabilzala dio Cachok

Hamabi urtean bizi izan zara Durangon, eta aurtengo ikasturte amaieran joango zara hemendik. Durangoren falta igarriko duzu?

Bai, jakina. Durangorena eta durangarrena. 12 urtean oso girotuta ikusten nuen neure burua herrian. Durangoko giro euskalduna, baserri girokoa ere badena... Maite ditut horrelako herriak. Jende asko ezagutu dut, eta ez Durangon bakarrik. Baita Abadiñon, Garain, Mañarian... ere. Eta beti pozik.

Euskal Jaiak Zornotzako kaleak girotuko ditu zapatu osoan zehar

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako kultur elkarteek Euskal Jaia prestatu dute zapatu honetarako. Goizetik gauera arte iraungo du jaiak. Ekitaldi nagusia herriko dantza taldeen, txistularien eta abesbatzen elkarlanagaz egingo da, 13:45ean, herriko plazan, eta herri bazkariagaz segituko dute gero. Pilota partiduak ere izango dira eta musika saioak iragarri dituzte. Zelaieta parkean erromeria egingo dute, 20:00etan.

Kantu poteoak harrera bikaina izan du Garain, eta parte hartzera deitu dute

GARAI • EKAITZ HERRERA

Antolatzaileak oso pozik daude Garaiko Kantu poteoak izandako harreragaz. Irailean egin zuten lehenengo ekitaldia, eta gogotsu daude hurrengoetarako. "Fenomeno pasatu genuen. 20 bat lagun batu ginen. Ordu eta erdian aritu ginen kantuan eta poteoan", azaldu dute. Kantu poteoa hilero egingo dute, hil bakoitzaren azken barikuan. Urri honi dagokiona 25ean egingo dute, 19:30ean, Herriko plazatik hasita.

2020rako ordenantza fiskalak onartu dituzte Abadiñon, ezohiko bilkura batean

ABADIÑO • A.M.

Udal gobernu osatzen duten EAJren eta Abadiñoko Independenteen aldeko botoekin, ordenantza fiskal berrien proposamena onartu dute. 180.000 eurotik gorako balio katala duten etxebizitzaren kasuan, interes indizea %0,32tik %0,25era jaitsi da. "Aldaketa horrek %21eko jaitsiera bat suposatuko die jabeen", azaldu du Iñaki Rekalde zinegotziak. Bestalde, auto elektrikoak (%75) eta hibridoak (%50) jabeek hobariak eskatu ahalko dituzte. EH Bildu abstenitu egin da udalaren proposamenaren aurrean. Baina emendekin bat sartu du, hiru puntugaz. "Ez dugu uste udalak nahikoa egin duenik zergen karga jaisteko", azaldu du Mikel Urrutia oposizio buruak.

Abadiñoko Udalak 12.297 euro eman dizkio Biocrucesi

Ekainean, haur minbiziaren ikerketara bideratutako ekitaldi solidarioa antolatu zuten, tartean spinning maratoia

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ekainean, haur minbiziaren ikerketara bideratutako ekitaldi solidarioa antolatu zuten Abadiñon. Bertan, 12.297 euro jaso zituzten eta diru hori Biocruces Osasun Ikerketa institutuari eman diote.

Martitzeneko ekitaldian, Mikel Garaizabal Abadiñoko alkateak, Javier Crespo alkateordeak

eta Inma Zapardiez antolatzaileetarikoa batek parte hartu zuten, besteak beste.

Guztira, 370 lagunek eragin zieten pedalei ekaineko spinning maratoian. Horrez gainera, antolatzaileek asteburu osoko egitaraua prestatu zuten. Zuzeneko musika eta tailerrak egon ziren.



Inma Zapardiezek, Javier Crespok eta Mikel Garaizabalek parte hartu zuten ekitaldian.

Sendabelarren balio medizinalak eta errituak aztergai izango dituzte Izurtzan

Mentxu Amunategik emango du ikastaroa, zapatuan

IZURTZA • EKAITZ HERRERA

Sendabelarrek duten botere medizinalaz gainera, hauek historian zehar izan duten tradizioa azalduko dute ikastaro batean. Mentxu Amunategi bermeotarrak gidatuko du ikastaroa. Amunategik urte asko daramatza sendabelarrek aztertzen. Ikastaro ibiltaria eskainiko du, eta, Izurtzako plazatik hasita, inguruko belarrak aztertzera joango dira. Tailerrak atal didaktikoa eta praktikoa izango ditu. Zapatuan egingo dute, 12:00etan. Gaztelaniazko beste ikastaro bat ere egingo dute, berau ere zapatuan, 10:30ean. Gerediaga elkarteak eta Izurtzako udalak antolatu dute ikastaroa, Europako Ondarearen Jardunaldien barruan.



Azeri-buztana.

Miren Bikandi omendu dute Iurretako Urrijenan, erregelak berreskuratzen lagundu zuen dantzari-maistra

Bost urterik behin antolatzen duten jaialdian, 65 urtetik gorako dantzariak omendu zituzte; tartean, Juan Bikandi dantzari-maisuaren alaba



Miren Bikandi, bere aitak erakutsi zien dantza taldeko kideekin.



Urrijenako dantzarien familia argazkia.

IURRETA • JONE GUENETXEA

Txilin soinua. Joan zen zapatuan, ezin zitekeen besterik entzun Iurretako plazan. Bost urterik behin belaunaldi guztietako dantzariak batzen dituen Urrijena ospatu zuten herrian. 200 dantzaritik gora irten ziren plazara, zahar eta gazte, zuten guztia ematera. Ekitaldian, 65 urtetik gorako dantzariak omendu zituzten. Errekonozimendua jaso zuten artean, bada txilinak jantzita plazara sekula ere irten ez

den pertsona bat. Sekula ere aurreku txapelketarik irabazi ez duena. Hala ere, giltzarri izan zen gaur egun Iurretan dantzatzaren erregelak berreskuratzeke. Miren Bikandi da, Juan dantzari-maisuaren alaba. Bere sasoiaren, Juanek mutiko taldeei dantzan erakusten zien. Miren dantzazale amorratua zen. Garai hartan, burutik pasatu ere ez zitzaion egiten emakume batek Dantzari Dantza plazan egin zezakeenik. Hala ere, ikasi egin

zuen, aitaren entseguetan hutsuneren bat zegoenean dantza eginez. Aurreku-atzeskuak neba Felixegaz

Bikandi giltzarri izan zen Iurretan dantzatzaren erregelak berreskuratzeke

entseatzen zituen, etxean. Behin-lako pausoak altxor baten moduan gorde zituen bere memorian.

Hamarkada batzuk geroago, erregelak berreskuratzeke guran, Jose Javier Abasolo *Tiliño* eta Mikel Sopelana iurretarrak Juan dantzari-maisuarengana jo zuten. Sasoi hartan, adinean aurrera eginda zegoen Juan, gurpildun aulkian. Eskuagaz markatzen zien pausoa, baina zailtasunak izaten zituzten elkar ulertzeko. Miren alabari esan zion pausoak markatuta Abasolori eta Sopelani irakasteko. Eta horrela egin zuen. Besteak beste, pla-

zan sekula ere dantzan egin bako emakume dantzari bati eskerrak existitzen dira gaur egun emakume zein gizonek dantzatzaren erregelak. Azken urteotan, genero ikuspuntua asko landu da euskal dantzetan. Iurretan bertan, emakume ezpatadantzariak dagoeneko hartu dute dagokien protagonismoa plazan, baita Mirenek ere. Urrijenan, aitaren taldeko ikasle ezpatadantzariekin sartu zen Miren plazara, publikoaren txalo artean.

Elorrioko herrigune historikoko termitak akabatzeke plana, martxan

Udalak jakitera eman duenez, hile honetan martxan ipini duten planak bost urteko iraupena izango du



Herrigune historikoko guztian aplikatuko dute tratamendua.

ELORRIO • M.Z.

Aspalditik, termitekin arazoa dago Elorrioko herrigune historikoan. Arazo horri konponbidea emateko asmoz, bost urte iraungo duen tratamendua aplikatzen hasi berri direla jakitera eman du Elorrioko Udalak aste honetan ohar bitartez. Termitak antzeman dituzten eraikinetan janaria ipintzea izan da lehenengo pausoa, termita-koloniak kontrolatu eta deuseztatzeke asmoz.

Orain urte bi hasitako prozesuaren jarraipena da hau. Sasoi hartan, Elorrioko Udalak termiten azterketa sakonagoa egitea eta esku-hartze orokorra egitea erabaki zuen. Hori horrela, herrigune historikoko etxebizitza guztiak aztertu zituzten, eta diagnosi bat egin zuten. Diagnosiaren emaitzak ikusita, esparru osoan eragin behar zela erabaki zuten, izurriteari amaiera eman ahal izateke.

Lanek 82.000 euroko aurrekontua izango dute. Udalak %30 ordainduko du, eta gainerakoa, herrigune historikoko bizilagunek.

Elorriko orientazio zerbitzua ipini dute langabe eta langileei laguntzeko

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Langabezian dauden pertsonen zein lan hobe baten bila dabilzan herritarrei laguntzeko asmoz, orientazio zerbitzua ipini dute martxan Elorriko. Ohar bitartez jakitera eman dutenez, Zabaltzen-Sartuk ipini du martxan zerbitzua, Elorrioko Udalaren babesagaz eta Lanbideren laguntzagaz. Urriaren 16tik dago martxan zerbitzua, Iturri Kultur Etxean, eta hitzordua hartu behar da aurrez. "Oso garrantzitsua da zerbitzu hau herritarrei zabaltzea. Pertsonen abiapuntua kontuan hartuta, eurei bidea erakustea da helburua, baliabide guztiak eskura ipintzea", adierazi du Laura Agudiñak, zerbitzuko orientatzaileak.

Nogen eta Kaotiko taldeen kontzertuak Mallabiko Urriko Jaietan

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabian Urriko Jaiek ospatuko dituzte, hilaren 25etik 27ra. Egitarau zabala dute eta musika kontzertuak dira osagaietarikoa bat. Ekitaldi nagusia Nogen eta Kaotiko taldeek eskainiko dute, urriaren 26an, gauez. Nogen 2016an Donostian sortutako taldea da. Folk, rock eta pop doinuak bi kaleratu ditu. Kaotiko 1990eko hamarkadaren amaieran Agurainen sortutako euskal rock musika taldea da eta bederatzi disko ditu merkaturatzen. Zuzeneko bi horien ondoren, Txurru Djaren emanaldia hasiko da, Mallabiko parkean. Aurreko egunean, urriaren 25ean, Ingot eta EZ3 taldeek eskainiko dute kontzertua, iluntzeko 21:00etan.

Hainbat herritarrek Atxondon ez dutela AHTa gura aldarrikatu dute

AHTrik Ez plataformako kideak eguenero batzen dira Apatamonasterioko plazan, 19:00etan



Dozenaka herritar batu ziren eguazteneko elkarretaratzean.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eguazten arratsaldean, dozenaka herritarrek Atxondon ez dutela AHTa gura aldarrikatu zuten Apatamonasterioko plazan, eta udal gobernu berriaren jarrera salatu zuten. "Badirudi udal gobernu berriari ahaztu egin zaiola herritarrek AHTaren inguruan duten iritzia, eta isilpean martxan ipini ditu garai batean gelditu ziren lan txikitzaileak", azaldu zuten AHTrik Ez plataformako kideek. Ekitaldian, udalari gardentasuna eskatu zioten, besteak beste.

12 bat urtean geldituta egon dira AHTaren lanak Atxondon,

eta azken osoko bilkuran alkateak jakitera eman zuenez, "AHTa badator Atxondora". Horren aurrean, herritarrek mobilizatzen hasi dira herrian, eta eguenero, 19:00etan, batuko direla jakitera eman zuten. "Argi dago sasoiak aldatu direla eta dagoeneko inguruan obra asko egin dituztela. Baina garaiz gaude

AHTrik Ez plataformako kideek gardentasuna eskatu zioten Atxondoko Udalari

oraindino! Orain 12 urte Atxondotik pasatu ez ziren moduan, orain ere ez dira pasatuko", esan zuten plataformako kideek.

Gainera, lan hauen ondorioak ez direla beste lan batzuenak bezalakoak esan zuten. "AHTak beragaz dakartza sarbide berri, zubi, zabortege, desjabetza eta hainbat lur mugimendu. Baita zarata, aire kutsadura eta abar ere...". Horrez gainera, etorkizuneko belaunaldi begira, "garapen jasagarri" baterako apustua egin gura dutelako eta "ingurumen osasuntsu" batean bizi gura dutelako, ez dutela AHTrik gura azaldu zuten.

Aurrekontu parte-hartzaileak martxan ipini dituzte Atxondon

Herritarren iritzia eta ekarpenak jaso, eta ekonomikoki bideragarriak diren proiektuak abiaraziko dituzte

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondarren ekarpen eta iritzia jasotzeko asmoz, aurrekontu parte-hartzaileak ipini dituzte martxan Atxondon. Udalak ohar bitartez jakitera eman duenez, atxondarrek euren proposamen eta iritzia ematea da aurrekontu parte-hartzaileen asmoa, eta teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren proiektuak martxan ipintzea.

"Herriko etxeetan galdetegi bat banatu dugu, herritarren artean parte-hartzea eta gardentasuna sustatzeko helburuagaz. Galdetegi horregaz, atxondarrek euren ekarpenak egin ahal izango dituzte", azaldu dute udalekoek. Ekarpen horiek udaletxean ipiniko duten postontzian utzi ahal izango dituzte, edo info@atxondo.eus helbide elektronikora bidali ahal izango dituzte.

Euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina berri bi ipini dituzte martxan Berrizen

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Euskararen erabilera bultzatzeko asmoz, kanpaina berri bi ipini dituzte martxan Berrizen. Lehenengoa guraso elkarteekin elkarlanean sortutakoa da. Hurrek euskara gustuko egoerekin eta bizipen positiboekin lotzea da kanpaina honen helburua.

Bigarren kanpaina 'Zergatik ez dugu tratu bat egiten? Zergatik ez dugu gure artean euskaraz egiten?' da. Herritarrek udalagaz euskaraz egitea da bigarren kanpaina honen helburua.

Kike Amonarrizen berbaldia bigarren Euskaraldiaren harira Zaldibarren

ZALDIBAR • A.M.

Urriaren 30ean, Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko presidentek berbaldia eskainiko du Zaldibarren. 'Gehiago eta sakonago' izenburuagaz, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo den Euskaraldia ekimenaren nondik norakoak azalduko ditu. Bigarren Euskaraldi honetan, herritarrengan ez ezik, entitateetan eragitea izango da erronka. Hitzaldia 19:00etan izango da, liburutegi zaharrean.

Orain 25.000 urte desagertutako leize-hartz baten eskeletoagaz erakusketa inauguratu dute Mañarian

Askondo koban aurkitutako hainbat hartzen hezurak batuz osatu dute Hontza Museoan ikusgai dagoen eskeletoa

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Leize-hartza orain 25 mila urte desagertutako hartz espeziea da. Batez ere, Europan bizi izan zen; baita Mañariko Askondo kobazuloan ere, 10.000 urte baino gehiagoan. Askondon 15 leize-hartz baino gehiagoren hezurak aurkitu izan dira. Hezur horietako hainbat konbinatuz, leize-hartz eme baten eskeletoa osatu dute eta joan zen astelehenetik Hontza Museoan dago ikusgai, ikasturte osoan.

"Bizkaiko leize-hartzen bildumarik garrantzitsuena museo honetan dago", adierazi zuen Asier Gomezek erakusketaren aurkezpenean. Gomez museoeko komisarioetarikoa bat da eta baita Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzailea ere.

Erakusketak hainbat osagai ditu. Esaterako, eskeletoaren on-

doan, beira-arasa baten barruan, tamaina desberdineko beste hiru leize-hartzen garezurrak batu dituzte. Argibide-panelak ipini dituzte ondoan.

Asteleheneko aurkezpen ekitaldian, Ainara Otxotorena Mañariko alkatea, Mireia Elkoroiribe Amankomunazgoko presidentea eta Lorea Bilbao kultura diputatua izan ziren, beste ordezkari batzuren artean.

Leize-hartza desagertuta dagoen arren, gaur egunean bizi den beste espezie batek, hartz arreak, badu loturarik orduko haregaz. "Hezurren ikerketa genetikoak erakusten du hartz arreak leize-hartzaren DNAREN zati txiki bat gordetzen duela", azaldu zuen Gomez komisario eta ikertzaileak.



Asier Gomez erakusketako komisarioa eta Enrique Huerta museoiko zuzendaria hartz eskeletoagaz.

Durungalde osotik ailegatutako ume dantzarien topaleku izango da Mañaria

MAÑARIA • J.D.

Andra Mari aisialdi eta kultur elkarteak urte birik behin ospatzen duen Euskal Jaia antolatuko da domeka honetarako. 11:00etan batuko dira plazan, eta honako talde hauek parte hartuko dute: Elorrioko Besaidek, Berrizko San Lorenzok eta Iremiñek, Abadiñoako Talde Batuak, Ermuko Txindurrik eta Mañariko Andra Mari taldeak.

Eguerdian kalejira hasiko dute, 12:00etan. Dantzari gazteak talde bitan banatuko dituzte eta talde bakoitza herriko alde batetik ibiliko da. Ondoren, 13:00 inguruan, plazan elkartuko dira berriro, eta dantzariak Mañariko etxeetan bazkalduko dute. Amaitzeko, 17:00etan, plazan elkartu eta alardea eskainiko dute.

"Zibersegurtasunean zer babestu gura dugun jakin behar dugu, eta norengadik"

Durangaldeko hainbat enpresa eta norbanakok zibererasoak jasan dituzte. Maristetan segurtasun informatikoa lantzen dute



Iratxe Lejarreta eta Ricardo Ferreria
Maristak ikastetxeko
Segurtasun
Informatikoa

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Zer gertatzen ari da enpresetan zibersegurtasunagaz?

Iratxe Lejarreta: Zibersegurtasuna beti existitu izan da, baina enpresek ez diote garrantzirik eman. Hori dela-eta, teknologia arloan ez dute azpiegituran inbertitu. Pertsona aditurik ere ez da izaten gai hau lantzeko. Orain, baina, datuek geroago eta balio handiagoa dute.

Zelan saihestu daitezke erasoak?

Rikardo Ferreria: Segurtasunean asko inbertitu arren, ez dago bermerik, bulnerabilitateak ateratzen direlako eta beti dagoelako zirrikituren bat. Hala ere, zer babestu gura dugun jakin beharko genuke, eta norengandik. Badaude ezagutza askorik barik sistemetara sartzen direnak eta badaude talde antolatu eta profesionalak ere.

Zelako zibererasoak izaten dira?

R.F.: Alde batetik, ingeniarietza soziala dago. *Phising* eta ordezen identitate erasoak izaten dira. Adibidez, Correosen gertatu dena orain gutxi. Twitter kontua hackeatu diete eta SMS bat heltzen zaizu. Correoseko pakete bat duzula

esaten dizute, eta horren zain bazauz sinetsi egin dezakezu. Zure pasahitza sartzen baduzu, sarbidea eman diezu. Beste erasoetako bat telefonoz egiten da. Etxeko telefonora deitzen dizute eta Microsoftetik deitzen dizutela esaten dute. Zure ordenagailua konprometitu dagoela diote. Beldurra sartzen dizute eta datuak eskatzen hasten dira. Mail susmagarriekin ere konfuz izan behar da.

Bestetik, enpresetan askotan gertatzen diren erasoak euren azpiegitura informatikoarekin zerikuzia dute. Mota askotako sistemak dituzte eta askotan barrura sartzea errazten duten bulnerabilitateak dituzte. Batzuek informazioa enkriptatzen dute eta trukean Bitkoinetan dirua eskatzen dute.

Eraso hauen aurrean, zelan babestu gaitzke?

I-L.: Batez ere, sistema informatiko egoki bat ipini beharko litzateke. Pertsonak ere trebatu egin behar dira, profesionalen aholkuak jarraituta. Plan bat sistematikoki egin behar da, eta jarraipen bat izan behar du.

R.F.: Oinarritzko aholkuak. Sesioak zarratu. Pasahitzen politika bat izan behar da. Ez du balio txakurraren izenak edo 1234 ipintzeak. Bestalde, badaude zibersegurtasunerako entitate zertifikatuak enpresetarako. Erasoa egonez gero, abisatu egin behar da, azkar erantzuteko.

Durangaldeko herritarrek ez diote entzungor egin Kataluniako erreferendumaren epaiari: protestarako deiak izan dira eskualdeko herrietan, aste osoan zehar

'Autodeterminazioa ez da delitua', 'Erreferenduma ez da delitua. Askatasuna' eta halako mezuekin, Durangaldeko herritarrek epaia salatu dute



Astelehenean lurretan egindako mobilizazioa.

DURANGALDEA • E.H. / A.M. / J.D.

Haserrea nabarmena da. Kataluniako erreferendumagatik auzipetutakoen epaiak Durangaldeko herrietan ere izan du oihartzuna. Espainiako Auzitegi Gorenak "sedizio delitua" egotzi diete bederatzi politikariri, eta "desobediencia" egitea beste hiruri.

Protestak bata bestearen atzetik etorri dira, gelditu barik. Astelehenean bertan, epaia jakin eta berehala antolatu ziren Durangaldeko herritarrek, euretako asko Gure Esku dinamikak deituta. Ez zeuden batere ados sententzian jasotako zigorrekin, eta protesta zaratasuak

egin zituzten. Auzian zigortutako hamaika politikari katalanei euren babesa agertu zieten. 'Erreferenduma ez da delitua. Askatasuna' irakurri zitekeen Durangaldeko herri askotan egindako elkarretarazteetan. Durango, Abadiño, Iurreta, Zaldibar, Zornotza, Elorrio, Berriz,

Mallabia eta Atxondo izan dira mobilizatu diren herriak. Eguazten arratsaldean, protestek Durangon izan zuten jarraipena. Herritar talde batek hiru deialdi hasi ditu 'Autodeterminazioa ez da delitua' lelopean. Besteak beste, herriko kaleak lazo horiz janzteko deia egin zuten.

Sindikatuak deia gaurko

ELA, LAB, STEILAS, ESK, Etxalde eta Hiru sindikatuek bat egin dute mobilizazioekin. Gaur, Durangoko eta Zornotzako udaletxeen aurrean batuko dira, 12:00etan. 13:30ean, ostera, industrialdeetara ere hedatuko dira elkarretaratzeko. Zornotzan, Boroako biribilgunean batuko dira; Abadiñon, Rothenbergen enpresaren aurrean; eta Mallabian, Goitondon, Hambre tabernaren ondoan.

Bartzelonan lekuko

Epaia kaleratu berritan, Bartzelonan lanean zebiltzan Durangalde-

ko herritar bigaz berba egin du atsekari honek. Irati Alkorta kazetari durangarra eta Hodei Zambrano editore zornotzarra Bartzelonan ibili dira Euskal Telebistako Ur

Gaurko, mobilizazioetara deitu dute Zornotzan, Durangon, Abadiñon eta Mallabian

Handitan saiorako lanean. El Prat aireportuan izandako mobilizazioetan izan ziren. "Jendetza zegoen oihuka, erantzuteko gogoz. Gero, tentsioa handituz joan zen, eta kazetari legez identifikatzen gintuzten txalekoak ipini behar izan genituen. Lehenengo aldia izan da horrelako egoera batean lan egin behar izan dudala", adierazi du Alkortak.

Bolalekuan komunak egiteko eta kultur etxea berrizteko lanak hasi dituzte asteon Otxandion

Kultur etxeko lanen barruan posta zerbitzua beheko solairura tokialdatuko dute, herritarrentzat eskuragarriagoa izan dadin



Bolalekuko eta kultur etxeko lanek sei hilabeteko iraupena izango dute.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Martitzen honetan hasi dituzte plaza ondoko bolalekuan komunak egiteko lanak. Lan horiek amaitzen dituztenean, kultur

etxea eraberritzeko obrei ekingo diete. Lan guztiek sei hilabete iraungo dute eta 95.756 euroko aurrekontua izango dute, udal arduradunen esanetan.

Lanek handienak kultur etxean izango dira. Alde batetik, orain goiko solairu batean dagoen posta zerbitzua beheko solairura tokialdatuko dute, sarrera dagoen tokira,

herritarrentzat eskuragarriagoa izan dadin. Erdiko solairua "osorik berriztuko da", Egoitz Garmendia alkateak azaldu duenez. Alde batetik, espazioa hobeto aprobetxa-

tzeko helburuagaz, areto nagusian irristailu-ateak ipiniko dituzte, gela txikiagotan banatu ahal izateko. Modu horretara, beharrezana dagoenean, hainbat gela sortuko dituzte espazio berean. Beste horrenbeste egingo dute gaur egun musika eskola dagoen gelan ere: irristailu-ate bat ipinita, espazio bitan banatzeko aukera egongo da. Bestalde, lehenengo solairuko gela guztiak intsonorizatu egingo dituzte eta argindar sistema berriztuko dute, besteak beste.

Areto nagusia birmoldatu egingo dute, espazio gehiago sortzeko aukera egon dadin

Goiko solairuan, komunak

Goiko pisuan, komunak eraberritu eta irisgarriago ipiniko dituzte, eta biltegi bat egingo dute. "Horrela, dena prest geratuko da etorkizunean igogailua ipini ahal izateko", azaldu du Garmendiak.

Lanek irauten duten bitartean, solairu berean dagoen liburutegia ohiko tokian mantenduko dute eta 17:00etatik aurrera egongo da zabalik, udalak ohar batean informatu duenez.

MALLABIKO URRIKO JAIAK

2019.10.26

URRIAK 19, zapatua

Irteera: Mallabitarrok egina
Izen-ematea: 663 070 492 telefonoan, eskolan edo liburutegian
Antolatzailea: Berbalagun

URRIAK 20, domeka

10:30 Duatloi txikia herri barruko zirkuituan.
Antolatzailea: Guraso elkarte

URRIAK 24, eguena

16:30 Hitzaldia: *Depresioa eta gaixotasun afektiboak*
Kontzejuzarrean
Antolatzailea: Mallabiko 3. adinekoen elkarte

URRIAK 25, barikua

16:30 Merendola eta tailerrak umeentzat eskolan
Antolatzailea: Guraso Elkarte

17:00 Buruhandiak eskolako frontoian
Antolatzailea: Guraso Elkarte

18:30 Txupinazoa udaletxeko balkoitik

19:00 Elizpeko pilota txapelketako finala elizpean

19:00 Errebal dantzaldi gidatua parkean
Antolatzailea: Gazte Alai dantza taldea

20:30 Oilasko pintxoak parkean
Tiketak: 1,50 €

21:00 INGOT eta EZ3 taldea, parkean
Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarte

23:00 Mugi panderoa erromeria taldea parkean

01:00 DJ Ander, plazan

URRIAK 26, zapatua

09:00 Nesken frontenis txapelketa herriko frontoian
Antolatzailea: A.D. Mallabia F.T.

12:00-15:00 Mallabiko IV. Ardu Ferixie, probalekuan (Sarrera: 7 €)
Pintxoak, salgai Mallabiko tabernariak eginda
Antolatzaileak: Mallabiko Udala eta Ardosaltsan

15:00 Herri bazkari autogestionatua elizpean

17:00 Birziklatze jolasak umeentzat parkeko aterpe berrian

18:00 Kale animazioa Dunbots txarangaz

22:30 Rock kontzertua parkean

NOGEN - KAOTIKO. Ondoren Txurru plaza

URRIAK 27, domeka

11:00 Umeen futbito partiduak eskolako frontoian. Antolatzailea: A.D. Mallabia F.T.

16:30 Antzerkia: *Futbolariak eta printzesak*. Umeentzat Kontzejuzarrean. Ondoren txokolatada.

17:00 Mus txapelketa probalekuan
Sariak: 1. saria: 120€ eta garaikurra. 2. saria: 100€. 3. saria: 80€. 4. saria: 60€. Izena ematea: 10€ bikoteko

Azaroak 1, barikua

12:30 Nesken gomazko paleta zirkuitua herriko frontoian

Azaroak 2, zapatua

17:30 "Zelai"-ri omenaldia eta herri kirolen erakustaldia herriko frontoian
Antolatzaileak: Mallabiko Udala eta Txondor Herri kirol taldea

Antolatzaileak:
Mallabiko Udala
Jai Batzordea



Orain hamarkada batzuk sortutako emakumeen taldeek diskurtso aldarrikatzaileago bat dakarten kolektibo feministei eman diete bidea

Zornotzan eta Berrizen diskurtso mota bi bereizi daitezke. Emakumeen talde kulturalak daude batetik, eta feminismoa korrante politiko modura lantzen duten taldeak bestetik. Iurretan, joera biak hibridatzeko joera ageri da. Joan den astean hasitako sailaren bigarren atala da honakoa

ZORNOTZA

Belaunaldi berriek zein helduagoek ikuspegi desberdinak dituztela erakusten dituen argazkia

Elkarte batzuek desagertzeraz jotzen duten arren, berriak indartsu datoz

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Udaleko berdintasun arloak eskaintzen dituen zerbitzuez gainera, izaera markatua duten elkarteek osatzen dute Zornotzako mugimendu feministaren mapa. Izaera nagusi bi ageri dira: hamarkada luzez iraun duten emakume taldeak daude batetik, adinez nagusiago direnak, eta, bestetik, belaunaldi gazteagoen ikuspegi gaurkotuak ere ageri dira. Bidean gelditutako taldeak ere badira. Zornotzako alargunen elkarte orain hainbat urte desegin zen.

Zornotzako Talde Feminista

MATXISMOAREN ALDAERA GUZTIAK AZALERATZEN

- **Sorrera urtea:** 2016
- **Helburu nagusiak:** Autodefentsa feministan oinarri hartuta, herriko arlo askotan ikuspegi feminista txertatzeko sareak sortzea. Herriko Martxoak 8 Plataformagaz harremana dute.
- **Ekintzak:** Sorginen gaua antolatzea, jaietako batzordean eragitea, indarkeria matxistak dituen aldaerak ikusarazi eta salatzea. Azaroaren 25eko ekitaldiak antolatzea. Hitzaldiak antolatzea.
- **Partaide kopurua:** 15
- **Kontaktua:** zornotzakotaldefeminista@gmail.com eta Zornotzako Talde Feminista (Facebook)

Martxoak 8 Plataforma

IRAKURKETA POLITIKOA BAINO GEHIAGO

- **Sorrera urtea:** 2018
- **Helburu nagusiak:** Martxoaren 8ko eguneko ekitaldiak antolatzea eta Euskal Herriko mugimendu feministak markatutako bost ardatz nagusiak herrian lantzea.
- **Izaera:** talde heterogeneoa. Askotariko adin-tarte, ezaguri eta jatorri batzen dituen plataforma. Feminismoa kontzeptu politiko modura ulertzen duten herritarrak eta aldarrikapenerako toki bat dela ikusten dutenak barnebiltzen ditu.
- **Kontaktua:** m8zornotza@gmail.com

TAWASOL elkarte

ZAILTASUNEI AURRE EGITEKO, INTEGRAZIOA

- **Sorrera urtea:** 2016
- **Helburu nagusia:** Emakume musulmanen artean kulturen arteko integrazioa sustatzea. 'Tawasol' berbak, hain zuzen ere, horixe esan gura du arabieraz: integrazioa.
- **Ekintzak:** Uneotan, umeentzako arabiera eskolak. Laster, emakumeentzat gaztelania eta arabiera eskolak eman gura dituzte. Horretarako boluntario bila dabilta. Zornotzar guztientzat ramadam amaierako jaia ere antolatzen dute.
- **Partaide kopurua:** 12 inguru
- **Kontaktua:** tawasolzornotza@gmail.com

UDALE elkarte

TALDE BETERANOIA, BETERANOEN TALDEA

- **Sorrera urtea:** 1990
- **Izaera:** Ikasketa akademikorik ez zuten emakumeek sortutako taldea. Gaur egun, ekintza kulturalak eskaintzen dituen elkarte izaera du. 60 urtetik gorako emakumeek osatzen dute.
- **Ekintzak:** Jakintza kultural orokorrekoak: Zine forumak, psikologiari lotutako hitzaldiak, bidaiak, pintura tailerrak eta bisitaldi kulturalak.
- **Partaide kopurua:** 250 inguru
- **Bilera maiztasuna:** eguaztene-ro, 16:00etatik 18:00etara.
- **Kontaktua:** Talde beteteranoa denez, ez dute kide berririk sarzterik aurreikusten.

IURRETA

Dibertsifikazioa talde bakarrean



Anderebide

BELAUNALDIEN ARTEKO OREKA

IURRETA • EKAITZ HERRERA

- **Sorrera urtea:** 2009
- **Helburu nagusia:** Emakumeen egoera plazaratzea, jendarean ahotsa hartzea eta erreferentziak sortzea.
- **Izaera:** Iurretako herritar guztientzat erabilgarria izan gura duen elkarte da. Feminismoaren baitan dauden korranteek askotariko mezuak plazaratzen dituztela oinarri hartuta, ekintzak eta jarrerak dibertsifikatzeko hautua egin du elkarteak.

- **Ekintzak:** Plano bitan bereizi litezke. Batetik, kide helduagoi begirako ekintzak daude. Formakuntza tailerrak, osasun fisikoari buruzko lan-tegiak, psikologia zerbitzua eta zoru pelbikoa lantzeko ikastaroak. Gazteagoi begira, autodefentsarako ikastaroak ere antolatzen dituzte. Elkarretaratze eta protestak egiten dituzte data seinalatuetan.
- **Etorkizuneko erronka:** kide gazteagoak biltzea.
- **Partaide kopurua:** 118 inguru.
- **Bilera maiztasuna:** eguenero, Goiuri kultur gunean
- **Kontaktua:** anderebide@gmail.com

BERRIZ

Herrian azterna uzten duen mugimendu feminista

Ikuspegi desberdina eskaintzen duten elkarte biren eta 30 bat urte dituen udal sailaren batuketara

BERRIZ • EKAITZ HERRERA

Udalak orain 30 bat urte zabaldutuen Berdintasun Saila. Geroago eta herritar gehiagok jotzen dute bertara, eta, orokorrean, berdintasun erreal bat lortzea eta indarkeria matxista amaitzea dira berriztarren kezka nagusiak. Gainerakoan, herri mugimendutik sortutako elkarte bitan batzen dira emakumeak.

Azeri gorriak

FEMINISMOA HERRI OSORA ZABALTZEN

- **Sorrera urtea:** 2015
- **Helburu nagusiak:** Sistema heteropatriarkalari aurre egiteko tresnak sortzea. Feminismoa herrira zabaltzea.
- **Ekintzak:** Manifestazioak eta tertuliak antolatzea. Hormarudiak egitea, hitzaldiak ematea eta erasoak salatzea. Elkarzaintza. Herriko beste elkarteekin harremana dute.
- **Partaide kopurua:** 55 inguru
- **Facebook orria:** Azeri Gorriak

Gure izarrak

25 URTEKO IBILBIDEA DUEN EMAKUME SAREA

- **Sorrera urtea:** 1994
- **Helburu nagusia:** Emakumeen garapen pertsonal eta soziala giza-arlo guztietan lantzea. Emakumeen laguntza sarea sortzea
- **Ekintzak:** Formakuntzari eta aisialdiari lotutako ikastaroak. Irakurketa, dekorazioa, birziklapena, yoga, egurraren lan-eta eta lege aholkularitza.
- **Bazkide kopurua:** 150
- **Kontaktua:** gureizarrak@kzgu-nea.net





Hareek denporak!

UNAI ETXEBARRIA TXIRRINDULARIA TXUPINERO

2003an Unai Etxebarria txirrindularia aukeratu zuten Durangoko jaietako txupinazoa botatzeko. Espainiako Itzulian garaipen itzela lortu zuen urte hartan. Hala ere, irabazi aurretik eskatu zioten jaietako hasiera ematea. "Horrek esan gura du ez naizela pregoilari izango etapa bat irabaztearren. Orokorrean egin dudana lanagatik baino. Horixe da gehien gustatu zaidana",

esan zuen txirrindulariak. ANBOTOK sasoi hartan egindako elkarrizketan Etxebarriak azaldu zuenez, lotsa handia pasatu zuen pregoia irakurtzerakoan.

Urte horretako egitarauak hainbat musika talde batu zituen jaietarako: Su Ta Gar, Mojinos Escozios, Gatibu, Jacuzzi... Egitarau hartako nobedadeetako bat motokros erakustaldia izan zen. J.G.

Durangaldea asteen

Adinekoak zaintzen dituzten senideentzat ikastaroak antolatu dituzte Durangon

Durangaldea | Loa zaintzeko ikastaroak, norbere burua zaintzekoak eta alzheimerri buruzko berbaldiak dira Zaindu programaren barruan antolatutako tailerretariko batzuk. Amankomunazgoak antolatu ditu ikastaro hauek, eta urritik abendura arte izango dira. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, 946030046 eta 946200546 telefonoetara deituta eman daiteke izena.

Esklerosi anizkoitza dutenen alde, Berrizen ibilaldia antolatu dute domekarako

Berriz | Hamabigarren urtez, Berrizen ibilaldia antolatu dute esklerosi anizkoitza dutenen alde. Berriztik Oizera joango dira eta ibilaldian parte hartu gura dutenek izena aurrez emateko aukera izango dute, Berrizburu Kiroldegian; baita egunean bertan ere. Ibilbidea 18 kilometrokoa izango da eta 9:00etan irtengo dira, Elizondo plazatik.

Bilduma erakusketa Elorrion, filatelika eta numismatika elkartearen eskutik

Elorrio | Elorrioko filatelika eta numismatika elkarteak bilduma erakusketa antolatu du hemeretzigarren urtez. Erakusketa urriaren 15etik 25era bitartean egongo da ikusgai, Iturri Kultur Etxean. Bertan, mundu osoko billeteak, Frantziako gobernuak bidalitako 5 frankoko txanponak eta erlojuak egongo dira ikusgai. Baita Txekoslovakiako zigiluak eta dominak ere, besteak beste.



Abadiñoako Kalbarioko errotondako lanak direla eta, semaforo bat ipini dute trafikoa erregulatzeko

Abadiño | Abuztutik martxan dira Aite Kurutzeko pareko bigurutzeko errotonda egiteko obrak. Harrezkero, lan horiek hainbat eragin izan dute trafikokoan. Aste honetan, esaterako, semaforoak ipini dituzte trafi-

koa erregulatu eta lanekin jarraitzeko asmoz. Udalak jakitera eman duenez, Zelaietatik Muntzaratzera bitarteko errepide zati autoak erre batetik joateko eta trafikoa txandaka bideratzeko ipini dituzte semaforo hauek.

Kalbarioko biribilguneko lanak Zelaietako urbanizazio proiektuaren lehenengo fasekoak dira. Bigurutzeko errotonda egiteaz gainera, espaloiak zabaltzea eta oztopo arkitektonikoak kentzea da asmoa, besteak beste.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Eskerrik asko parte hartzeagatik!

Datorren urtean ere zuen argazkien zain egongo gara.

Urriaren 25eko ANBOTO astekarian izango duzue irabazleak ezagutzeko aukera.

**UDA KO
5. ARGAZKI
LEHIAKETA**

anboto
komunikabideak



The Government

MUSIKA

ELORRIO :: Urriak 19

Madrildarrak AteneON egitasmoaren eskutik etorriko dira Elorriora

Rock&roll, garaje, blues eta soul doinuak jotzen dituen The Government talde madrildarra etorriko da asteburuan Elorriora. AteneON egitasmoaren barruan eskainiko dute kontzertua, zapatuan, 13:30ean, Ateneoan. Bezperan, Kvalvika eta Mety Files taldeek joko dute, 22:30ean.

Urriaren 18an

DURANGO jaiak

'Ezagutu Durango eta bere ingurua' mendi ibilbidea nagusientzat, 09:00etan.

Gurutze Gorriaren ate irekien saioa, 17:00etan, Ezkurdin. Simulazioa, 19:00etan (euriagaz, San Antonio ikastetxean).

'Back2Classics' ohe elastikodun ikuskizuna, 18:00etan, Aurora Abasolo parkean (euriagaz Neversen).

Tortilla txapelketa, 18:00etan, Txosnagunean. Sari banaketa, 20:00etan.

Serigrafia tailerra, 18:00etan, txosnagunean.

Nesken gomazko paleta MPB zirkuitua 2019, 18:00etan, San Faustoko pilotalekuan.

Kalejira Batukandragaz, 19:30ean, Alde Zaharretik.

Ekialdeko dantzak:

KHUZAYMA elkarte, 20:00etan, Andra Marian.

I. Talent Show Lehiaketa, 21:00etan, Ezkurdin.

Sugarri fanfarrea, 21:00etan, Alde Zaharretik.

'Jamming tour' inprobisazio saioa, 22:00etan, Andra Marian. Helduentzako umore saioa (Jamming konpainia).

Bertsolariak: Onintza Enbeita, Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Unai Agirre, Amaia Agirre eta Gorka Pagonabarraga.

Gai-jartzailea: Igor Elortza. San Agustin kulturgunean, 22:30ean. Gonbidapen zenbakituak Arte eta Historia Museoa. **Azken Sustraiak +Liher + IRA+ Klag Klub**, 22:30ean, toxsnagunean.

ELORRIO musika Kvalvika + Emy Files, 22:30ean, Ateneoan.

Urriaren 19an

ABADIÑO deialdia Geredixa mikologia elkarteak antolatutako erakusketarako batutako perretxikoak Errota kultur etxean utziko dituzte, 16:30ean. Bertan, IZADI Natur Zientzia Elkarte kideek aztertu eta sailkatuko dituzte.

BERRIZ dantza Growing Young, 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO jaiak Diana, 07:00etan. **'Zezenak Dira' dultzaineroekin** 07:30ean.

Nekazaritza azoka, 11:00etan, Ezkurdin.

Xake txapelketa, 11:00etan, Ezkurdin.

Astronomia tailerrak, 11:00etan, Ezkurdin (euriagaz, Plateruen plazan).

Umeentzako tailerra, 11:00etan, Andra Marian.

Eskubaloia: Ibaizabal-Llodio, 12:00etan, Landako kiroldegian.

Kalejira txistulariekin, 12:00etan.

Kalejira trikitilariekin (Txiri-Txiri), 12:00etan.

Patata tortillen XII. Txapelketa, 12:00etan, Landako Gunean.

Xaibor, Landako Gune parkean: 12:00-14:00

(Euriagaz, San Antonio ikastetxean).

Elkartasun bazkaria, 14:30ean, txosnagunean.

'Ez da kasualitatea' bertso saio musikatua, 16:00etan, txosnagunean.

Crossfit zirkuitu puzgarri erraldoia, San Antonio ikastetxean: 16:00-20:00 (16 urtetik gora).

Errugbia: Durango Nissan Gaurisa RT-Elorrio RT, 17:00etan, Arripausuetan.

Animazioa trikitixagaz nagusien egoitzetatik, 17:00etan.

Bigantxa eta poneyak, 17:30ean, zezen plazan.

XXXVI. San Fausto zesta-punta txapelketako finalak, 18:00etan, Ezkurdi Jai Alain.

'Street Sasomendi' dantza-ikuskizun tailerra, 18:00etan, txosnagunean.

Taldeak moztarrotz defile, 18:30ean Madalenatik Andra Marira. Amaieran, sari banaketa.

'Al otro lado' kale antzerki, 18:30ean Askatasun etorbidean

Sugarri fanfarrea, 18:30ean, Madalenatik.

Gizonezkoen saskibalo partidua: Tabirako Baque-Gallofa, 19:00etan, Landako kiroldegian.

Suziriak eta txokolatada, 19:30ean, Zuhatzolan.

Txapito Guzman eta Ibarako Langostiniek, 20:00etan, txosnagunean.

Stragos Dja, 20:00etan, Andra Marian.

Zezen suzkoa, 21:00etan, Ezkurdin.

Behaketa astronomikoa. Ghanako txaranga, 21:30ean, Alde Zaharretik.

Proyekt Show Dj Jaia, 22:00etan, Andra Marian.

Luhartz, 23:00etan, txosnagunean. Ezkurdin,

Nueva Alaska orkestra.

Urriaren 20an

ATXONDO babajana

Baba jana, Arantza eta Pantxogaz, Amillena Arrazolako bentan. Izena emateko: 685713187 edo 608321901 telefonora deituta.

ABADIÑO erakusketa

XXVIII. Perretxiko Erakusketa, 11:00etan, Errota kultur etxean. Perretxiko banderillak probatzeko aukera.

DURANGO jaiak

Diana, 07:00etan.

'Zezenak Dira' dultzaineroekin 07:30ean.

Mutilen San Fausto VIII. Padel Txapelketako finalak, 10:00etan,

Landako kiroldegian. **Mañaria errearen garbiketa**, 11:00etan.

Haur parkea + ASEBI elkarteagaz eta Denboraren Bankuaren eskutik tailerrak, 11:00etan, Ezkurdin (euriagaz, Landakon).

Ohe eslatikoak, zezen mekanikoa + jolasak, 11:00etan, Landako Gunean.

Nesken San Fausto VIII. Padel Txapelketako finalak, 11:30ean,

Landako kiroldegian. **Tabira Musika Banda**, 11:45ean, J.M. Barandiaran egoitzan.

Kalejira txistulariekin, 12:00etan, Alde Zaharreen.

Poneyak eta zaldiak, 12:00etan, Landako Gunean.

Arku-tirorako gunea, Landako Gune parkean, 12:00etan.

'Trakamatraka' ikuskizuna, 12:00etan, Aurora Abasolo parkean.

Herri kirolak, 12:30ean, Ezkurdin.

Tabira Musika Banda, 13:00etan, Andra Marian.

Durango Uria XIX. Margo Lehiaketako sari banaketa, 13:00etan,

Ezkurdiko aretoan. **'Danok dantzara' (L'Atelier): break dance, funky eta hip-hop tailerrak eta erakustaldia**, 17:00etan, Ezkurdin.

Puski eta Txurruski pailazoak, 17:00etan, txosnagunean.

Izar Gaztea abesbatza 17:30ean, Andra Marian.

Errekortarien erakustaldia, 17:30ean, zezen plazan. Ondoren, bigantxak.

Grupo Veracruz: Habanerak, boleroak, merengeak eta cumbiak, 18:00etan, Andra Marian.

Txokolatada eta Pantxikeri agurra, 18:30ean, txosnagunean.

Iraultza fanfarrea, 18:30ean, Alde Zaharretik.

Patxikotxuri eta jai agur esateko kalejira, 19:30ean, udaletxeko plazatik irtenda.

Jaien amaiera su-artifizialekin, 20:00etan, tren-kotxera zaharretan.

ELORRIO antzerkia 'Lur' (Xake Produkzioak), 17:00etan, Arriola antzokian.

'Lur' Arriola antzokian

ANTZERKIA • Julian jolas-denda zahar baten jabea da, eta panpina bat prestatzen dabil Ane bilobarentzat. Biek bidaia zirraragarri bat hasiko dute panpinagaz. Itxuraz abentura irudimentsua dirudienak Aneren eta Jon bere aitaren arteko harremana berbidieratzen lagunduko du. Jonek onarpen arazo bat du: Ane mutila da. Urriaren 20an, 17:00etan, Xake Produzioaren eskutik.



Azaroak 16-22:00etan
CHEAP AND THE NASTY BOYS
+ **ASTOTURFER**
Kontzertua

Abenduak 5-23:00etan
En Tol Sarmiento
Kontzertua

www.plateruena.eu

PLATERUENA
Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatekxka@plateruena.net



IRA + Liher

KONTZERTUA
DURANGO :: Urriak 18

Sanfaustoez musika aukera zabala eskainiko dute egunotan. Bide berriak zabaldu dituzten taldeak igoko dira gaur, 22:30ean, txosnaguneko oholtzara: Liher, IRA, Azken Sustraiak eta Klag Klub.



'The Florida project' film dokumentala. Urriaren 23an, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

Zinema

:: **Berriz** KULTUR ETXEA

• **Manou**
barikua 18: 18:15
domeka 20: 17:00

:: **Durango** ZUGAZA

• **Maléfica: maestra del mal**
barikua 18: 19:30/22:00
zapatua 19: 17:00/19:45/22:30
domeka 20: 16:45/19:30
astelehena 21: 18:30/21:00
martitzena 22: 20:00
eguztzena 23: 20:00

• **Zombieland: mata y remata**
barikua 18: 19:30/22:00
zapatua 19: 17:30/20:15/22:30
domeka 20: 18:00/20:30
astelehena 21: 18:30/21:00
martitzena 22: 20:00
eguztzena 23: 20:00

• **Joker**
barikua 18: 19:30/22:00
zapatua 19: 17:00/19:45/22:30
domeka 20: 18:00/20:30
astelehena 21: 18:30/21:00
martitzena 22: 20:00
eguztzena 23: 20:00

:: **Elorrio** ARRIOLA

• **La noche de las dos lunas**
zapatua 19: 22:00
astelehena 20: 20:00
martitzena 21: 20:00

:: **Zornotza** ARETOA

• **Joker**
barikua 18: 20:15
zapatua 19: 19:30
astelehena 20: 18:00
martitzena 21: 18:00

• **Mientras dure la guerra**
zapatua 19: 22:00
astelehena 20: 20:15
martitzena 21: 20:15

• **El rey burro**
domeka 20: 16:00

MALLABIA urriko jaiak
Duatloi txikia, 10:30ean,
Guraso Elkartek
antolatuta. Herri barruko
zirkuituan.

ZORNOTZA musika
Amorebieta-Etxano
Kantuz Kantu, 12:00etan,
Zornotza Aretoan.

Urriaren 22an

IURRETA hitzaldia
'Poesiaz blai' Leire
Bilbao idazlearen
eskutik, 18:30ean,
bibliotekan.

DURANGO hitzaldia
'Aldaketa klimatikoa.
Oinarri zientifikoak'
(Hizlaria: Jon Saez, EHU
irakasle eta ikertzailea)
19:30ean, Pinondo Etxean.
Gaztelaniaz. Marisatsa.

Urriaren 24an

BERRIZ musika
Daniel Lumberras,
20:00etan, Berrizko Kultur
Etxean.

DURANGO antzerkia
'Ghero, azken
euskalduna', (Tartean
Teatroa), 19:00etan, San
Agustin kulturgunean.

DURANGO hitzaldia
'La bruja olvidada',
(Hizlaria: Ander
Berrojaltz), 18:00etan,
Arte eta Historia Museoa.
Bizidun nagusien elkarteak
antolatuta.

IURRETA hitzaldia
'Zure mediku kontsulta
prestatzen', 18:00etan,
Nagusien Etxean. Bizkaiko
Medikuen Elkargoaren
eskutik.

MALLABIA urriko jaiak
'Depresioa eta
gaixotasun afektiboak',
16:30ean, Kontzejuzarreen.
Hirugarren Adinekoen
Elkarteak antolatuta.

Urriaren 25ean

URRETA ipuinak
Leire Bilbao ipuin
kontalaria, 17:30ean,
bibliotekan (3-4 urtekoak,
heldu batek lagunduta).
Bost urtetik gorakoentzat,
18:00etan.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.



“*Ánimos de vivir*” diskoko izenburuak dioen lez, abestietan bizitzeko gogoari kantatzen diogu”

Zapatuan, urriak 19, Txapito Guzman eta Ibarrako Langostiniek taldeak kontzertua eskainiko du Durangon

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Azkeneko hauek hile biziak izan dira Txapito Guzman eta Ibarrako Langostiniek taldeko kideentzat. ‘Ánimos de Vivir’ disko berriaren grabazioan murgilduta egon dira, bideoklipa grabatu dute **Sorginola** gaztetxean, eta zuzenekoak prestatzen dabilta. Berton Bertokoa elkarteko kideekin ere beste bideo bat grabatu zuten. Egoi Petitek (trikitixa), Gorka Bidaurrazaga ‘Potti’-k (bateria), Josu Abaunzak (baxua) eta Mikel Astobiza ‘Asto’-k (gitarra) osatzen dute taldea.

Zelakoa izan da bigarren grabazio hau?

Josu Abaunza: Aurrekoaren estiloa. ‘Potti’-gaz grabatu dugu, bere lokalean. Hamar kanta grabatu ditugu, eta Berton Bertokoako ki-

deekin grabatu genuena ere sartu dugu diskoan.

Mikel Astobiza: Kontu batzuk aurretik genituen gordeta, baina gainerakoak azken urtean prestatu ditugu. Azkenekoz, Areatzako (Bizkaia) jaietan jo genuen, iazko abuztuan. Orduetik hona, abestiak prestatzen aritu gara hain-

“

Lurretan eta Giliernan (Araba) kanta berriak ezagutu ez arren, publikoa oso gustura egon zen”

■

bat hilez, lasai-lasai, estudioan. Lasaitasun horri eskerrak, disko honetarako gehiago landu ditugu konponketak.

laz kontzertu asko eskaini zenituzten.

M.A.: Bai. Eta horri eskerrak, gu gusturen zegaz genbiltzan eta jendeak zer zuen gogokoen identifikatu ahal izan genuen. Urtebetean asko jo genuen, eta ez ginen aspertu, baina gelditzeko unea heldu zitzaigula uste genuen. Tarte bat hartu genuen, aurrerapausoak zeintzuk izango ziren pentsatzeko.

J.A.: Lehen, txarangaren ordu biko erreperatorioa eta kontzertuetakoa prestatu behar izaten genituen. Orain, kontzertuak lantzen aritu gara soilik. Negua pasatzean erabakiko dugu zer egin, baina, orain, zuzenekoak prestatzen baino ez gabilta.

Lan berria kaleratu duzuenetik, kontzertu bi eskaini dituzue. Zelan joan dira?

M.A.: Iurretan eta Giliernan (Araba) eskaini ditugu kontzertu hauek, eta oso gustura aritu gara. Gilierna herri txikia da eta ez zituzten gure kantak ezagutzen, baina oso ondo hartu gintuzten.

J.A.: Kantak jakin ez arren, jendea gustura ibili zen, dantzan, eta horrela adierazi ziguten oholtzatik jaitsi ginenean ere. Ea Araban gehiago jotzeko aukera dugun. **Kontzertu gehiago dituzue lotuta?**

M.A.: Durangoko jaietako hau daukagu, eta, gero, abendurako, hiru gehiago ditugu.

J.A.: Eskaera egin genuen arren, ez dugu Durangoko Azokako Aho-

tsenean jotzeko aukerarik izango, baina kalean jotzeko asmoa dugu, orain urte bi egin genuen moduan. Legazpian eta Algortan ere egongo gara.

M.A.: Kontuan edukita rantxerak gehiago direla udarako, ez dago txarto. Udan asko deitzen digute, jaietarako-eta, eta ondo dago bestelako tokietan ere kontzertuak jotzea. Kalean, tabernan eta elkarte kultural batean joko dugu.

J.A.: Orain urte bi ere jo genuen kalerik kale, karroagaz, eta gustura ibili ginen; ingurua errespetatzen genuen, kalean jende asko dabilen egunak direlako Azokakoak, eta, aldi berean, ikusle berri kopuru handi batengana heldu ginen.

Talde gutxi daude inguruan rantxerak egiten dituztenak.

M.A.: Egia da. Gureak, hala ere, ez dira rantxera klasikoak. Nahiko punkiak gara arlo horretan.

Taldekiderik gehienek iragan punkia duzue.

J.A.: Petitek izan ezik, gainerakook bai, baina berdin da, edozein lekutan jo izan du berak eta! (barrez)

“

Durangoko Azokan kalean jotzeko asmoa dugu, orain urte bi egin genuen moduan”

■

M.A.: Abestien bertasioak apur bat azkarrago jotzen hasi ginen, horrela irteten zitzaizkigun eta. Erritmo horiekin, kanta propioak jo genitzakeela konturatu ginen gero. Horren ondoren, Petite beste erritmo batzuk jotzen hasten zen, eta gu horren gainetik.

J.A.: Aritu eta aritu, eboluzionatzen joan gara, estiloa fintzen eta gure lekua topatzen. Ez dakigu nora helduko garen. Gure helburua ondo pasatzea da eta ez dugu planik egin.

M.A.: Talde lez gehiago konprometitu gara, lan gehiago egin dugu. Bardeetara (Nafarroa) joan ginen argazkiak ateratzera, bideoklipa grabatu dugu, zuzenekoetarako jantziak aldatu ditugu. Barne funtzionamenduan ere aldaketak egin ditugu.

Hitzetan bizipoza transmititu gura izan duzue?

M.A.: Bai, izenburuak dioen moduan, bizitzeko dugun poztasun horri abesten diogu. Ez dira protesta-kantak. Esperientzietan oinarritzen dira, baina, bizitzan lez, kritika ere badago, ironiatik enfokatuta. Badugu kanta bat Francoentzat, beste bat euskarentzat, amets bat kontatzen duen beste bat...

J.A.: Bizipoza transmititu gura izan dugu beti, alaitasuna, askatasuna, momentu txarretan aurrera egiteko gogo... Letretatik aparte, soinuaren doinuak ere alaitasuna transmititzen du; beraz, esan daiteke ez dela aurreikusitako zerbait, horrela irten zaigu.

Iurretako Bibliotekak Leire Bilbaoren obrari buruzko ziklo bat eskainiko du urrian zehar

Urriaren 22an, 23an eta 25ean izango dira hurrengo ekimenak; lehenengo ekimenak 15ean eta 16ean izan ziren



Iñaki Totorikaguena, Leire Bilbao eta Ziortza Onaindia.

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Leire Bilbao idazlearen obra literarioari erreparoso egingo diote *Poesiaz blai* jardunaldien barruan. Durangon bizi den idazle ondarroarrak bibliografia oparoa du; azken lana Katxiporretagaz kaleratu duen *Bizi-dantza* disko-liburua da. 2006tik hona, gazteentzat zein helduentzat idatzi ditu liburuak, eta hauetako zenbait gaztelaniara itzuli dituzte; adibidez, *Garazi Gerezi*. Urte hauetan idatzitako hainbat olerki euren diskoetarako erabili dituzte hainbat abeslarik.

Jardunaldi hauek zenbait idazleren ondare kulturala ezagutzera emateko asmoz antolatu dituzte. "Literaturak busti gaitzala, gure etxeetan zein kaleetan", azaldu du Iñaki Totorikaguena alkateak. Lehenengo edizioan, Joseba Sarrionandia idazle iurretarraren obra izan zen protagonista. Iaz, ostera, Gloria Fuertes idazlearena. Ziortza Onaindia herri bibliotekako arduradunak berriro euskal idazle baten figura aukeratzea

azpimarratu du: "Askotan, etxetik hurbilen duguna ez dugu aitortzen eta horixe da guk egin gura izan duguna".

Talde lana

Leire Bilbaok, bere aldetik, esker oneko berbak eduki ditu Iurretako Herri Bibliotekarentzat zein udalarentzat, eta proiektuan sortu den elkarlana azpimarratu du. Elkarlan horretatik eratorri da, besteak beste, urriaren 25ean eskainiko duten *Hariak eta tantak* ikuskizuna; Leire Bilbaoren

Urriaren 25ean diziplina anitzeko ikuskizuna egongo da, 19:30etatik aurrera

poesian oinarritutako diziplina anitzetako saio honetan Bertzilla musikariak, Aritz Lasarguren dantzariak, Maite Mutuberria marrazkilariek eta Leire Bilbaok berak parte hartuko dute; saio hau helduentzat izango da. Egun berean, Peru Magdalenak *Ahaztu eta jolastu* tailerra gidatuko du. Ekitaldi bietarako gonbidapenak eskatu behar dira aurrez.



Uzta berriak ostera Bizkaiko udagoiengan

<p>SONAKAY + IKER LAUROBA BILBO BBK aretoa urriak 26 20:00 sarrera: 10/12 €</p>	<p>ANNE ETCHEGOYEN & LES NOUVELLES VOIX BASQUES BERRIZ Kultur etxea urriak 26 20:00 sarrera: 8/10 €</p>	<p>AGUR ETA DOLORE ANTZERKIA-SOLASALDIA PLENTZIA Danontzat Gaztetxea azaroak 9 20:00 sarrera: 3 €</p>	<p>HUNTZA GETXO Muxikebarri Antzokia Arrigunaga aretoa azaroak 15 22:00 sarrera: 8 €</p>	<p>OLATZ SALVADOR + XABI BANDINI BILBO Kafe Antzokia azaroak 28 22:00 sarrera: 10/12 €</p>
--	--	--	---	---


ANTOLATZAILEA:



BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



SARRERAK:



Azken euskaldunaren istorioa kontatzen duen 'Ghero' antzezlanak Durangaldera dator berriro

Durango San Agustin kulturgunean egongo da antzezlanak ikusteko aukera, urriaren 24an, 19:00etan

ANTZERKIA • A.M.

Euskaltzaindiaren mendeurrena ospatzeko ekimenen artean dago *Ghero* antzezlanak. Tartean konpainiaren eta akademiaren elkarlanetik jaio da azken euskaldunaren istorioa kontatzen duen obra. 3000. urtean kokatuta, Mikel Martinez, Patxo Telleria, Olatz Ganboa, Iñaki Maruri eta Ane Pikaza dira antzezlanaren parte hartzen duten protagonistak. "Bertan, euskara desagertzeko zorian dago eta azken euskaldun horrek izkin egin nahi dio halabeharrari", azaldu du Tartean-eko kideek. Horrela, "bizirik irauteko beharrari" buruzko istorio bat dakarte, euskararen "pizkundea" bilatzeko asmoagaz. Bederatzi antzerki poemak osatzen duen obra, "guztiak euskararen planetaren inguruan orbitatzen" dutenak.

Patxo Telleriak idatzita, antzezlanak umorea darabil euskararen etorkizunari buruz berba egiteko eta hausnarketa bultzatzeko. Telleriagaz batera, Jokin Oregi eta Mikel Martinez dira Tartean konpainiaren sortzaileak eta arduradunak.

Azken urteotan sari ugari jaso ditu konpainiak; tartean, Max saria euskarazko testurik onenari *Lingua Nabajorum* antzezlanagatik, eta Ercilla saria sorkuntza dramatiko onenari *Pancreas* obragatik.

Elorrio eta Zornotza

2018an estreinatu zenetik, hogeitaka emankizun eduki dituzte Euskal Herriko hainbat txokotan. Urtarrilean, adibidez, Berriztik igaro zen konpainia.

Durangoaren ondoren, Elorri (azaroak 29) eta Zornotza (abenduak 21) izango da. Tartean konpainiak 2020. urtean ere jarraituko du ikuskizuna eskaintzen.



'Ghero'.

Gai Librean

Ihintza Orbegozo Igartua Plateruena



Kontsumitu dezagun euskal kultura plazerragatik

Udazkenean, Durango Azo-ka gerturatzen doan heinean, euskarazko lanak argia ikusten hasten dira urtero, bertako stand-etan ikusgarri ipintzeko asmotan. Ez dago esan beharrik saltzeko hau dela lekuri proposena Euskal Herrian, eta horrek eztabaida ugari ekartzen du urtero jendarte zabalera. Euskal kulturaren kontsumoa egun horietara mugatzen dela eta urte osoan apenas irakurri, entzun edota gozatzen ditugula euskarazko sorkuntzak diote askok. Hiruzpalau egun horietan poesia eta saiakera liburu potoloak, distortsioz beteriko inork ulertzen ez dituen taldeen binioloak eta duela 30 urteko talde kutunaren kaseteak —hura bai musika eta ez gaur egungoa!— erosi eta urte osoan zehar etxeko apalean —ikusten diren leku batean, hori bai— hautsa hartzen izaten ditugula dio askok, eta bada hori baieztatzen duten estatistikak ere. *Postureo* hitza behin eta berriro errepikatzen da, jendeak intelektual itxura eman nahiko balu bezala, egunerokotasunean euskarazko liburuak irakurri, antzerkiak ikusi eta musika entzun baino telebista ikustea nahiago duenean.

Zerbait argi baldin badaukat, Euskal Herrian askotariko sortzaile ugari dagoela da, gustu guztiak asetzeko modukoa, beraz, utz ditugun intelektual itxurak eta aprobetxa dezagun Durango Azoka horien guztien topaleku dela, lehen aipatutakoez gain, talde txiki berriak, elkarrizketaz beteriko nobela irakurterrazak, umorezko antzerki eta filmeak eta euskarazko aplikazioak ezagutzeko, gustuko duguna jaso, eta urte osoan zehar horiek kontsumitzen plazerragatik jarrai dezagun.

Dantzaz plataformaren 'Growing Young' ikuskizuna Berrizera helduko da

Konpainiak urriaren 19ko zapatuan eskainiko du dantza ikuskizuna, Berrizko Kultur Etxean



'Growing young'.

DANTZA • A.M.

Dantzaz plataformaren ikuskizun honek Europako dantza konpainia entzutetsuenetako batzuetako dantzari gazteen hainbat pieza batzen ditu. Ikuskizuna osatzen duten lau piezak giza harremanen unibertsoan kokatzen dira. *Youth* da pieza horietako bat; Wubkje Kuindersma da honen egilea, eta, bere berbetan, "denborak guztia aldatu dezake, baina gure barruan beti geratzen da gu garena". *Prelude for a wasted tear* (Itzik Galili koreografo israel-darraren pieza), *Une* (Janis Claxton australiarrena) eta *Lead* (Daniele Ninarello italiarrarena) dira beste hiru piezak.

Zapatuan izango da ikuskizuna, 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

Arriko Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

CERAMICAS
MACOBER

ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO Tel.: 946 811 727

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o **BASA**
Miren Amuriza (Elkar)

2^o **HEZURREN ERRETURA**
Miren Agur Meabe (Susa)

3^o **Sapiens**
Yuval Noah Harari (Elkar)



EVEC enpresako familia argazkia.

Berrizko EVEC enpresak mende erdiko ibilbidea bete du eta familia ospakizun batez ospatu du

EVEC enpresa erreferentia da zehaztasun handiko artezketa lanetan, euren makinariari eta langileei eskerrak

PUBLIERREPORTAJEA • A.M.

Ospakizunetarako sasoi da Berrizko EVEC enpresan. 2019an, mende erdiko ibilbidea egin izana ospatzen dabilta. Horretarako, urte hauetan guztietan EVEC familia osatu duten lankide eta lankide ohiak batu dira oraintsu, egindako bidea gogoratu eta

Egun, EVEC enpresak aeronautikan, automozioan eta makina-erremintan lan egiten du

etorkizuneko erronkei buruz berba egiteko. Ospakizun giroan bisitatu zituzten enpresako azpiegitura berriak, eta, gero, elka-

regaz bazkaldu zuten. Guztira, 80 bat langile bildu ziren bertan, baita senide ugari ere. 45 bat lagunek lan egiten dute gaur egun.

1969an sortu zen enpresa, eta Elementos de Verificación y Control da bere izenaren jatorria, baina, urteekin, bestelako negozio ildoak ere zabaldu dituzte. Azken urteetan makineria eta azpiegitura ataletan inbertsio ugari egin ondoren, gaur egun aeronautika, automozio eta makina-erremintako sektoreetan lan egiten dute. Egun, etorkizuneko erronkarik garrantzitsuenetako bat digitalizazioaren industria 4.0 deritzona kontsideratzen dute. Esfortzu handia egiten ari dira teknologia berriak euren gestio eta produkzio arloetan integratzeko, urte bi barru guztiz ezarririk egongo

delakoan. Teknologia berriek ahalbidetzen dituzten abantaila guztiak aprobetxatu gura dutuzte, fabrikazioan eta gestioan liderrak izateko. Esanguratsua da bertako langileen adin baxua, eta bertan gaztetan lanean hasteari eskerrak urteetan hartu

Etorkizuneko erronketako bat digitalizazioaren industria 4.0 deritzona kontsideratzen dute

duten esperientzia. Altxor hori mantentzeko, erraztasun handiak eskainiz jarraitzen dute. Horren adibide dira laneko ordutegiak, egutegiak, baimenak, instalazioetan bertan sukaldia egoteak eta bertan sukaldatzeak.



Adituak zehaztasun handiko artezketetan
Eitua industrialdea 60, 48240 Berriz, Bizkaia • Tel.: 34 94 682 41 75 • evec@evec.es

Adituak zehaztasun handiko artezketetan

Berifikaziorako orotariko produktuak: Pasa-Ez Pasak, neurrira jartzeko patroiak

Makina-erremintako pieza kritikoen fabrikazioa



Ostalaritza gida

anboto

 Durango



PLATERUENA Kafe antzokia
Landako etorbidea, 4 - DURANGO
Tel.: 946 030 300
www.plateruena.eus
Egunero zabalik. Menu bereziak,
egunerokoak, taldeentzakoak eta
ospakizunak.

 Durango



KOBIKA JATETXEA
San Ignazio, 8 - DURANGO
Tel.: 946 810 003
Egile sukaldaritza eta tradizionala.
Menu bereziak eta karta.

 Iurreta



GAUARGI
Dantzari, 4 behea - IURRETA
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta
etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak.
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak
6€-tan. Egunero zabalik. Domeketan eta
jaiegunetan rabak.

 Durango



OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864
www.olajauregi-jatetxea.com
Eguneko menuak, bereziak,
taldeentzakoak eta ospakizunak.
Egunero zabalik.

 Durango



GORA GORA
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO
Tel.: 946 811 384
Plater konbinatuak, hanburgesak,
ogitartekoak eta kazolatxoak.

 Abadiño




ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

 Durango



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Alde zaharrea kokatuta.
Pintxo gozoak eta giro alai.



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



SASKIBALOIA • JOSEBA DERTEANO

Tabirako-Baqueren gizonen taldeak EBA mailan hasi du denboraldia. Beste talde batzuen ukoa aprobetxatuta igo da Euskadiko Lehen Mailatik EBAr. Erronkari aurre egiteko, jokalaria berri bi batu dira taldera: Imanol Orue-Mazaga eta Miguel Zamora. Orue-Mazaga durangarra Zornotza Saskibaloitaldetan urte batzuk eman ondoren itzuli da Tabirakora. Zamora master bat egitera etorri da Bizkaira, eta urtebetean jokatu du Durangoko klubean.

Orain urte bi, Poloniako ligan jokatzeo aukera izan zenuen. Zelako esperientzia izan zen?

Erasmus-etik joan nintzen, graduondoko proiektua egiten, eta esperientzia zoragarria izan zen. Hemengo Zilarrezko Ligaren baliokidea den mailan jokatu nuen. Hango maila hemengo baino baxuagoa da, baina jendeak konpromiso handia du. Fisikoki egiten duten lana harrigarria da; goiz eta arratsalde entrenatzen dira. Urte ederra izan zen niretzat. Lehenengo Mailara igo ginen eta ligako joko-antolatzaierik onena izendatu ninduten.

Zelan sortu zitzaizun Tabirakora jokatzeo aukera?

Kasualitatez. Udan, Kantabriako kanpin batean nengoela, Zornotza Saskibaloitaldede zuzendaritzako lagun bat ezagutu nuen. Hark esan zidan prest zegoela Tabirakogaz berba egiteko. Ondoren, Julen Berrocal entrenatzaileak deitu zidan, eta horrela sortu zen aukera.

Harrobitik elikatzen den talde batean, arrotz sentitu zinen hasieran?

Banekien zein zen klubaren filosofia. Familia baten modukoa

“Gogoari dagokionez, sekula ere ez dut hain talde konprometiturik aurkitu”

Miguel Zamora madrildarrak urtebetean jokatu du Tabirako-Baquen, hemen master bat egiten dabilela aprobetxatuta



Miguel Zamora Gómez
Tabirako-Baqué taldeko jokalaria
Rivas-Vaciamadrid (Madril) | 1993

“

EBA mailan defentsiboki talderik ordenatuenak eta intentsionak izaten saiatu behar gara”

—

zirela eta oso giro ona zegoela esan zidaten, eta horixe aurkitu dut. Oso ondo hartu naute. Kirol arloko helburuak baztertu barik, pertsonengan asko zentratzen den klub delako ere igarri dut. Arlo humano hori lehenengo egunetik ikusi dut. **Aurtengoa denboraldi berezia da Tabirakorentzat. EBA mailan dabil, beste talde batzuen ukoa aprobetxatu.**

Erronkari aurre egiteko ahalmena ikusten diozu taldeari?

Bai, dudarik barik. Badakigu ez gara talenturik gehien duen taldea, baina intentsitateari eta gogoari dagokionez, sekula ere ez dut hain talde konprometiturik aurkitu.

Helburuei buruz galdetzen badizut, partidurik partidu joango zaretela erantzungo didazu?

Ba, ez. Partidurik partidu barik, entrenamendurik entrenamendu joango gara. Horiexek dira Julen Berrocal entrenatzailearen berbak. Hasiera-hasieratik, argi utzi digu hori. Egunero intentsitatea ipinita, detaileetaraino hobetzen ahaleginduta... EBA mailan defentsiboki talderik ordenatuena eta intentsioena izaten ahalegindu behar dugu.

Bizkaia bote luzeko hirugarren txapelaren bila irtengo da Berrizen

Bizkaia eta Gipuzkoak Berrizburuko pilotaleku irekian neurtuko dituzte indarrak domeka honetan



Eguazteneko aurkezpenean xehetasun guztiak eman zituzten.

PILOTA • J.D.

Berrizko pilotaleku irekiak Euskal Herriko Bote Luzeko Txapelketa finala hartuko du domekan, 17:00etan. Bizkaia eta Gipuzkoak neurtuko dituzte indarrak. Txapelketa antolatzen duten hirugarren aldia da aurtengoa eta aurreko biak Bizkaia irabazi ditu. Beraz, hirugarren txapela lortu dezake asteburuan. Aurtengo Bizkaiko taldea 12 pilotarik osatu dute eta eurretako bost abadiñarrak dira: Ander Antxia, Egoitz Amantegi, Aitor Arabiourrutia, Jon Arana eta Asier Aspuru.

Bizkaitarrak faborito

Bizkaitarrak faborito dira finala irabazteko. Ligaxkako fasean eta finalerdietan nagusitasunez irabazi dituzte norgehiagoka guztiak. Esate baterako, Berrizen jokatu-tako finalerdian, 9-2 menderatu zuten Gipuzkoako beste talde bat. Hala ere, finalera sailkatu den Gipuzkoako taldea oso lehiakorra da eta Berrizera sorpresa ematera etorriko da.

Frades inoiz baino hobeto aritu da munduko txapelketan

Bere laugarren parte hartzean 15. tokian amaitu du

IRONMANA • J.D.

Joan zen asteburuan, Gurutze Frades triatleta iurretarrak 15. postuan amaitu zuen Ironman-en munduko txapelketa. Bere ibilbideko emaitzarik onena da txapelketa honetan: 2016an, 33. tokian geratu zen; 2017an 22. postuan

amaitu zuen eta iaz 24. helmugaratu zen. "Lasterketa hau ez da batere erraza. Edozein txikikeriak konplikatu dezake, eta pozarren nago azken metroraino borrokatu naizelako 15. postua lortzeko", adierazi du Fradesek Konan (Hawaii) lehiatu duen proba buruz.



Gurutze Frades Konako helmugara sartzen.

**Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
dituzu?**



**Batu
Anbotoko
whatsapp
taldera**

Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



Izan zaitez berriemaile ere.

Bidali zure argazki eta bideoak

Otxandioko lehenengo duatloi krosak Euskadiko txapelduna erabakiko du

Federatuentzat ez ezik federatu gabekoentzat ere 'open' bat antolatu dute domekarako



Otxandioko Mainondo Kultur Elkartea eta Galdakaoko Guke elkarte dira antolatzaileak.

toa... Maila biak kontuan hartuta, 70 bat duatloiarik parte hartuko dute lasterketan.

Irteera puntua zein helmuga Otxandioko plazan egongo dira. Emakumeek 12:00etan hasiko dute proba, eta gizonek 10 minutu geroago. Parte-hartzaileek korrika hasi eta amaituko dute duatloia, 5,5 eta 2,8 kilometroko ibilbide banagaz. Bien artean, 20 kilometro egingo dituzte bizikletan.

Umeen duatloia

Umeen artean duatloia sustatzeko baliatuko dute domekako hitzordua. Nagusien proben aurretik, 09:00etan hasita, 3tik 12 urtera arteko haurrei begirako duatloiak antolatu dituzte herrigunean. 100 bat haurrek parte hartuko dute guztira.

DUATLOIA • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko Ulma Duatloi Krosak indartsu ekingo dio bere bideari domeka honetan. Lehenengo aldia den arren, modalitateko Euskadiko eta Bizkaiko txapeldunak

bertan erabakiko dituzte. Baina federatuentzat ez ezik, federatuta ez daudenentzat ere 'open' izaerako lasterketa bat antolatu dute. Lasterketa honek hainbat modalitate izango ditu: bakarka, binaka, mis-



Kulturalak musika jaialdi batez ospatuko du mendeurrena

FUTBOLA • J.D.

Aurten 100 urte bete dira Durangoko Kulturala futbol kluba sortu zutenetik, eta, ospatzeko, musika jaialdi bat antolatu dute azaroaren 9rako, Landako Gunean. Gozategi taldea izango da kartelburua, eta AC/DC eta Itoiz-en tributu taldeek ere joko dute: Black Ice Tribute Band eta Espaloian taldeek. Sarrerak (5 euro) honako tokietan eskuratu daitezke: Kale Kantoitabernan, Anboto tabernan, Ibaizabal kafetegian, Axpe tabernan eta Tabira zelaian.

Jokaldia

Eneritz Iturriaga
Mazaga
Txirrindularitza



Politika, zertarako nahi zaitugu?

Egunetik egunera, harrituago gelditzen naiz gaur egun gertatzen diren kontuekin. Ez naiz sartuko politika arloan, baina, nire ikuspuntutik, munduak guztiz galdu du norabidea. Bilbon Frantziako Tour-eko etapa bukaera bat egongo dela? Murias-Euskadi desagertzea doanean? Emakumeen Bira desagertuta dagoen? Nire taldea ere Euskal Herritik kanpo gidatu behar dugun?

Gobernuak hainbat diru atal ditu kirola sustatzeko, ulergarria den moduan, baina, zer gertatzen da txirrindularitzarekin? Ni maitemindu ninduen kirol honek munduko emakumerik onenak ekartzen dizkigu urtero etxe alborra, eta gobernuak ezin du lagundu? Lotsagarria iruditzen zait.

Beste kasu bat Euskadi-Murias desagertzearena da, bost urtez errepidean egon eta gero. Sasoi bateko Euskaltelekin gertatzen zen moduan, orain, momentu kritiko batean, ezin diete etxeko mutilei lagundu?

Eta gero Tour-eko etapa bat etxean amaituko dela esaten digute. Baina ia euskaldunik ez daukagu bertan egoteko eta! Zelan ulertu daiteke hori? Politika, politika eta politika. Betiko moduan, gauza jakin batzuetarako bakarrik dago dirua. Askotan pentsatzen dut, zergatik aurrera jarraitu taldeekin, neskekin... dena oztupoak baitira! Sarritan pentsatzen dut, kirol hau sustatzeko, batez ere, bihotzetik lan egiten dugunok, dirua eta denbora galduz... Mezezi du? Baina, hotzean ikusita: kirol honek ematen dizkigun balioak gutxitan ikusten dira kalean. Horregatik bakarrik bada ere, borrokan jarraituko dut, pena handiz Euskadi Muriasi eta Emakumeen Birari agur esaten diogun bitartean.

Asteko kirolaria

“Posible dudan heinean, Munduko Txapelketa osoa egin gura nuke”

Asteburuan jokaturako Espainiako Enduro Txapelketan laugarren izan da Irazola

Peru Irazola 17 urteaz hasi zen motorrean ibiltzen, osabak oparitutako Pitbike batean. Baina bere afizioa oraintsu hartu du serio, eta asteburuan Elgoibarren jokaturako Espainiako Enduro Txapelketan laugarren postua lortu du.

Asteburuan laugarren izan zara Espainiako Enduro Txapelketan. Pozik zaude lortutakoagaz?

Egia esanda, bai. Espero baino hobeto ibili nintzen eta, gainera, gustura aritu nintzen motorrean. Beraz, pozik nago lortutakoagaz.

Beraz, itxaroten zenuena baino emaitza hobea lortu duzu.

Azken hilabeteen geldi egon naiz.

Eskumuturreko mina izan dut eta lesionatuta egon naiz. Gainera, joan zen asteko martitzen arte ez nuen jakin lehiatzeko moduan egongo nintzen ala ez. Baina, azkenean, medikuak baimena eman zidan. Lasterketa hasieran kontu handiagaz irten nuen. Beldur nintzen ea eskumuturrak nola erantzungo zuen.

Hala ere, izan zenituzten proba bietan sasoi onean zaudela erakutsi zenuen.

Goizean, hiru orduko proba bat izan genuen. Proba horretako emaitzen arabera zen arratsaldeko irteera ordena, eta zazpigarren postua lortu nuen. Arra-

tsaldeko proba ordu bi eta erdikoa izan zen. Goizean, oso gustura sentitu nintzen, baina arratsaldera nekatuta heldzearen ardura nuen. Hala ere, oso ondo heldu nintzen eta gustura amaitu nuen.

Podiumetik hain hurbil gelditzeak amorruta ematen du?

Azken itzulian, lehia estua izan nuen hirugarrenagaz. Baina hilaletako geldidaldia igarri nuen, eta puntutxo bat falta zitzaidan. Baina, orokorrean, pozik nago lortutakoagaz.

Denboraldiaren nolako balorazioa egiten duzu?

Ez nuen denboraldia oso ondo hasi, pelbisa apurto nuen-eta. Baina,



PERU
IRAZOLA ARBULU

Elorrio, 1994

apurka-apurka, sasoi hartzen hasi nintzen eta postu onak egitea lortu dut. Esaterako, Aguilar De Campoon (Palentzia) jokaturako Munduko Txapelketan 24. postua lortu nuen, orain arte lortu dudan posturik onena. Orokorrean, balorazioa positiboa da.

Eta ze asmo daukazu datorren denboraldirako?

Datorren denboraldian, posible dudan heinean, Munduko Txapelketa osoa egin gura nuke.


ZURE txokoa
DURANGON ORDUKAKO
TXOKO ALOKAIKUA

Bazkariak
Afariak
Urtebetetzeak
Ospakizunak
Bataio
Jaunartze
Enpresa bilera



688 864 975

Info@zuretxokoa.com
www.zuretxokoa.com



Komentukale 23 behea, 5. esk. • 48.200 Durango - BIZKAIA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiari bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621. 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Abadiño. Muntzaratz auzoan, 90 m²-ko etxebizitza trastelekuarekin salgai Arlozabal kalean, 3 logelakoa. Tel.: 665 73 31 51

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handiduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauzez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa

baduzu deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

IRAKASKUNTZA

Klase Partikularrak Natur Zientzietan. DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasleei klase partikular pertsonalizatuak emateko prest nago. Biologia Gradua eta DBH eta Batxilergoan irakasle izateko Masterduna, ingeles C1 maila. Ikasleak, ikasketa teknketan, edozein zientziatiko eta matematikako irakasgaiekin lagun ditzaket. Durango eta inguruetan lan egingo nuke. Kontaktuan jartzeko: deitu edo Whatsapp-a idatzi Tel: 688 64 59 83 zenbakira.

LAN ESKAINTZAK

ETXEKO LANAK

PERTSONAK ZAINDU

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago. Gipuzkoan zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali, Tel.: 602 89 50 18 gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile gisa lan bila. Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaintzeko prest nago. Baita etxeko garbiketa lanak egiteko, arropa lisatzeko eta sukaldaritza lanak egiteko ere (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: Tel.: 644 55 83 90

Barneko langile gisa lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa lan

bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu Tel.: 643 72 71 98 telefono zenbakira.

Pertsona nagusiak zaintzeko.

Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

Mallabian pertsona bat behar dugu andre bat zaintzeko.

12:00etatik 19:00etara Mallabian andre bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. Euskaraz jakin behar du. Mallabiako edo Ermukoa bada hobeto. Tel.: 695 78 78 99

Umeak zaintzeko eta klase partikularrak emateko prest.. 0-12 urte bitarteko umeak zaintzeko edota klase partikularrak emateko prest na-

goen 24 urteko neska bat naiz. Haur Hezkuntzako unibertsitate gradua bukatzen ari naiz eta esperientzia handia daukat mundu honetan. Elorrio eta inguruetan lan egiteko prest nago. Interesatuak nirekin kontaktuan jarri Whatsapp bat idatziz edo deituz Tel.: 692 71 66 46 telefono zenbakira.

IRAKASKUNTZA

Portugeseko klase partikularrak. Irakasle portugesa behar da klase partikularrak emateko Durangon. Tel.: 678 29 11 67

Hizkuntzak praktikatzeko berbalagun bila nabil. Ingelesa eta frantsesa ikasten ari naiz, eta antzeko interesa duen Durango inguruko norbaitekin harremanetan jarri nahiko nuke, elkarrekin hitz egiten mintzaira eta ulermena hobetzeko asmoz. Tel.: 617 37 89 33

ASTE HONETAN

IÑAKI ELORZA



OIHANA AZKORBEBEITIA



ABEL BARRIOLA



Ttop euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.

DOAN

ttop
Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

Informazio gehiago:
ttop.eus



Instalatu orain!

DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n



Botikak

BARIKUA, 18 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 19 - 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

JAIO-ABENDIBAR
Errekakale 6. - **ELORRIO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 20 - 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 21 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 22 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 23 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 24 - 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**


Zorion Agurrak



Zorionak, **Aroa!** Gure etxeko erreginak 4 urte egin ditu. Ea opari asko jasotzen dituzun. Txikitxo, musu handi bat!



Zorionak, **Joane!** Zapatuen, urriak 19, 11 urte egingo dozuz. Oso ondo pasau zure egunien! Muxu handi bat aitaren, amaren eta Izaroren partez.



Zorionak eta urte askotarako, **Udane** eta **Illan**. Belarritik tirakada handi bat eta muxu asko etxeko guztion partez.


GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozaturango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Haizea (778. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Zorionak, **Naikari**. Muxu handi handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Urantz**, urtetxo bat egitearren. Muxutxu pila, izeko, osaba, amama, aitate eta batez be zure lehengusina Udane, Izar eta Ibaiaren partez. Maite zaitugu, txikitino.



Gure etxeko txikiak, **Helene**, 10 urte egin ditu. Oso ondo ospatuko dau. Zorionak Mainerren, aitaren eta amaren partez.

Eguraldia

ZAPATUA 15° / 11° ☁

ASTELEHENA 17° / 7° ☁

EGUAZTENA 17° / 11° ☁

DOMEKA 16° / 9° ☁

MARTITZENA 13° / 10° ☁

EGUENA 18° / 11° ☁



ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

“Euskaraz pentsatzeak asko lagundu dit japoniera ikasteko”

Gorka Gerediaga orain 11 urte joan zen Japoniara lehenengoz, beste lau lagunekin, eta han bizi da gaur egun

Gorka Gerediaga Etxaburu

• Berriz, 1981

Merkataritzako ingeniari teknikoa automozio arloan

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Maleta egin eta Tokiora (Japonia) joan zen Gorka Gerediaga, orain zazpi urte, bizimodua aldatu eta zorte bila. Europako iparraldeko herrialderen batera joatea pentsatuta zuen berrizarrak, han lan egiteko asmoz. Baina Tokioren alde egin zuen, hango lagunak animatuta. Aurretik ere Japonian birritan egondakoa zen Gerediaga, oporretan joanda. Euskal Herrira urtero etortzen saiatzen da.

Zelan moldatzen da berriztar bat munduko hiririk handienean?

Aldaketa handia da, asko dira desberdintasunak, baina nahiko ondo moldatu naiz. Dena dela, ez da berdina hemen lagunak edukita etortzea edo inor ere ezagutu barik. Hemen astean zehar lagunekin elkartzeko oso arraroa da.

Zerk deitu dizu atentziorik gehien?

Lasaitasunak. Tokio horren handia bada ere, ez da batera zaratatsua. Kanean, trenean zein metroan oso lasai ibiltzen zara.

Japoniarrek badute antzekotasunik euskaldunokin?

Andrek maneiatzen dituzte etxe-ko diruak, eta txikiteoa existitzen ez den arren, lana amaitzean askotan joaten dira izakayara. Ez dute espero atzerritarrok japonieraz egitea eta apur bat egiten badiezu harrিতuta begiratzen dizute. Orain 40-50 urteko Euskal Herriaren traza du.

Handia da kultur arteko talka?

Herri eta hirien arteko talka handiagoa da. Hirietan indibidualagoa da izaera; Tokion nabaria da.

Errugbiak lagunartea sortzeko aukera eman dizu.

Elorrioren errugbian jokatzeko nuen eta errugbiari eskerrak egin ditut lagunak Tokion. Elorrioko entrenatzaileak Tokyo Gaijin RFC taldean jokatzeko nuen elorriaren baten kontaktua eman zidan, eta, bigarrenez etorri nintzenean, partidua bat jokatu nuen eurekin.

Zeren falta igartzen duzu Tokion?

Familia eta lagunetatik aparte, noizean behin txuleta eder bat jatearen falta.

Japoniera ikastea ez zen lan erraza izango...

Ez. Batez ere, eskuz idazterako orduan. Eguneroko praktikatuz ezean, a h a z t u egiten da kanjia-k idaztea; ordenagailuan oso erraza

da. Irakurtzea eta berba egitea nahiko erraza da horren aldean. Euskaragaz antzekotasunak dituenek, euskaraz pentsatzeak asko lagundu dit japoniera ikasteko orduan.

Zelako hiria da Tokio?

Hiri lasaia, aktiboa. Edozein tokitara joan zaitezke trenez, oso ondo komunikatuta dago. Horixe gustatzen zait gehien. Zerbitzurik gehienak 24 orduan daude martxan.

Tradizioa eta modernitatea ondo uztartzen dituen tokia da?

Bai. Punta-puntako hiria izanik, Tokion ikusten da ondoen hori.

Kontraste handia iruditzen arren, segituan ohitzen zara.

Japoniarrak oso langileak direla diote. Bizitzaren erdigunean dute lana.

Mitorik handiena da hori. Ez dira oso produktiboak, lanera oso goiz sartu eta berandu irten arren. Gero lankideekin edatera joatea lanaren parte kontsideratzen dute gainera.



Lau-hortza

Bixente Aizpurua Eguren Irakaslea



Kontraesana

Zorionez, gero eta jubilatuko gehiago gaude eta hori arazo bihurtzen ari da gaur egun ditugun politiko kasuak. Aurrez neurriak hartu beharrean, gerorako uzten dute ia dena eta baloia handitzean ez dira gai erantzun egokirik emateko.

Jubilatu bakoitzeko 2,5 kotizatzaile behar dira eta une honetan 1,8 baino ez daude. Denok dakigu langile asko kontraturik gabe ari dela lanean, eta gehienak, etorkinak. 2015eko datuen arabera, Euskal Herrian 76.000 pertsona, gehienak emakumeak, zeuden lanean gure nagusiak zaintzen edo etxe lanak egiten, eta horietatik 29.600 baino ez zeuden kontraturekin. Zenbat egongo dira gaur egun? Zelako lan baldintzekin?

Askotan, nahiz eta kontratua egin nahi, ezin da, ez dutelako paperik. Lana aurkitzeaz batera, zergatik ez dira erregularizatzen hiru urte bete arte itxaron beharrean?

Begira zenbat lagun gehituko ziren kotizatzaile lez Gizarte-Segurantzara. Desoreka askoz ere txikiagoa izango zen eta hilero sortutako defizita asko gutxituko zen.

Hain zaila da horrelako erabaki bat hartzea? Nora begira daude politikariak?

Enpresa askotan, lanpostu batzuk bete ezinik ari dira, langile faltagatik. Bertakoak ez badira prestatzen, zergatik ez dituzte prestatzen kanpotik etorritakoak?

Zenbat eta kotizatzaile gehiago izan, orduan eta hobeto, eta jubilatuei ordaintzeko itsulapikoa osasuntsuagoa egongo litzateke. Aurretutako dirua beste gauza askotarako erabil daiteke. Adibidez, RGI kobratzen ari den jendea hezi eta lan merkatura bideratzeko.

Momentu honetako politikekin sarritan premia gorrian daudenak laguntzetatik kanpo geratzen dira parasito horiek beraiei zegozkien laguntzak xurgatzen dituztelako.

Ea ezkutaketara ibili beharrean arazoari adarretatik heltzen dioten eta nahiko kostata irabazitako erretiroa gozatzen uzten dituten.

Berba bitan

Paisaia bat

Fuji mendia

Janari edo plater bat

Txuletak

Pelikula bat

Alien

Zer ekarriko zenuke Tokiotik Euskal Herrira?

Izakayak (betiko taberna edo jatetxea)

Kirol bat

Errugbia

Abesti bat

Mari (Su Ta Gar)

DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, **Kabilduoste zona** eskusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaituz!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa

www.sukia.com